

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA

2018-2020ko Legealdiaren Plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Argitalpena: 1.a. XXXXX 2018

Tirada: XXXX ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Autoretza: Eusko Jaurlaritza, Estrategia hirugarren sektoreko sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bidez.

Fotokonposizioa:

Inprimaketa:

ISBN:

DL:

Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gizarte-ehuna eta sektoreen arteko lankidetzaren sustatzeko baterako estrategia

Gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeak euskal gizartearen funtsezko aktibo bat dira, eta haien ekarpena ezinbestekoa da gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzailea eraikitzeko, bai eta gizarte-beharrei modu egokiagoan (integrala, hurbilekoa, pertsonalizatua, parte-hartzailea) erantzuteko ere, sektoreen arteko lankidetzaren bidez eta pertsonen beraien, familien, kolektiboen edo komunitate hartzaileen parte-hartzearekin.

Hala aitortzen eta adierazten du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak (EHSSL), zioen azalpenen hamargarren paragrafoan eta *elkarrizketa zibilaren printzipioa eta erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko eredu mistoa* finkatzean. *Elkartasuna eta justizia, berdintasuna eta kohesioa, edo demokrazia eta partaidetza bezala, elkarrizketa zibila eta eredu mistoa ere batera erreklamatzeko dira.*

Elkarrizketa zibilaren printzipioa, euskal sektore publikoarekin (betearazleak eta legegileak), erakundeen eta sareen, eta gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaile eta protagonisten eskubidea onartzea dakarrena, haiei dagozkien politika publikoen fase guztietan parte hartzeko, egikaritze-fasea barne (7. artikulua).

Eta *eredu mistoa*, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematekoa, publiko-soziala, zuzeneko kudeaketa publikoa nagusi duena eta gizarte-arloko ekimenarekin lankidetzan aritzekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak aurreikusten duena eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak (III. kapitulua) gizarte-arloko esku-hartzearen esparru osora zabaltzen duena: gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistema, eta eremuen arteko elkarrekintzarako espazioak; adibidez, soziolaborala, soziosanitarioa, soziohabitazionala, sozioedukatiboa, soziokulturala edo soziojudiziala.

Beraz, *euskal gizartea da apustu bat arau bidez finkatu duena, Gobernuak ere sustatu eta partekatzen duena*, EHSSren ekarpena aitortu eta bultzatu duelako, Euskadiko gizarte-ehuna indartu, elkarrizketa zibila bultzatu, eta erantzukizun publikoko zuzkiduran ekimen publikoaren eta gizarte-ekimenaren arteko lankidetzan sendotzeagatik, eta interes orokorreko beste jarduera batzuetan lankidetzan aritzeagatik, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

Lankidetzan publiko-soziala gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaile, ondasun erkidera bideratu eta pertsonen aldekoaren bermea da eta izan behar du. Eta, beraz, erantzukizun publikoa finkatzea eta gizarte-beharrei erantzuna ematean gizarteak aktiboki parte hartzea eskatzen duen gizarte- eta garapen-eredua izango du oinarri, batik bat gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

Hala, Eusko Jaurlaritzak, EHSSL eta XI. Legealdiko gobernu-programa garatuz, EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez (EEZM), *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia* eta 2018-2020 Legealdiko plana egin du, EHSS indartzeko eta sustatzeko asmoz, eta euskal sektore publikoaren eta EHSSren arteko lankidetzaren ibilbidearekiko koherentea den esparru arautzaile berri hau praktikan finkatzeko; baina, aldi berean, elkarrizketa zibila eta eredu mistoa oinarritzko zutabe dituen *izugarritzko jauzi kualitatiboa* da.

Beatriz Artolazabal Albeniz

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua

Aurkibidea

1	Aurkezpena	1
2	Estrategiaren oinarriak	6
3	Euskadiko Hirugarren Sekotze Sozialaren diagnostikoa	9
3.1	Euskadiko Hirugarren Sekotze Sozialaren definizioa eta nortasuna	9
3.2	Zifra nagusiak	12
3.3	Eronka eta Ikuspegia	15
4	Estrategiaren laburpena	17
4.1	Helburu orokorrak	17
4.2	Jarduerak	20
4.2.1	Estrategiaren laburpena	20
4.2.2	Jardueren xehakepena (mapa)	28
5	Jarduera lehenetsiak (fitxak)	32
5.1	Jarduera lehenetsiak eta lehenespen irizpideak	32
5.2	Fitxei buruzko alderdi metodologikoak	35
5.3	12 jarduera lehenetsien xehetasunak (fitxak)	38
6	Planaren zabalkundea, jarreipena eta ebaluzazioa	69
1.	ERANSKINA. EHSSLren aurreikuspenekin koherentea den ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako zikloa	72
2.	ERANSKINA. Glosarioa eta laburdurak	73

1 Aurkezpena

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen Estrategia* (EHSSSE) egitea aurreikusita dagoela Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean (EHSSL); hain zuzen, 17. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian.

Beraz, estrategiak eta hari dagokion planak lege-mandatu bati erantzuten diote eta EHSSren eta euskal sektore publikoaren arteko gero eta lankidetzaren eta elkarlan handiagoko ibilbidea jasotzen eta indartzen duen arau-esparrua indartzen dute. Eta “hirugarren sektore sozialari laguntzeko” Eusko Jaurlaritzaren konpromisoari ere erantzuten diote; konpromiso hori XI. Legealdiko gobernu-programaren lau zutabeetako bigarrenean kokatzen da: giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak (II.4 ardatza, 138. konpromisoa).¹

Bigarrenik, estrategia:

a) plana bezala, Eusko Jaurlaritzak egin du (aurreikusitako 34 jarduera propioetan inplikaturako sailletako bakoitzarekin elkarriketan), EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan, EEZM Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren bitartez;

¹ Zehazki, 2. ekimenean, hau aurreikusten da: *hirugarren sektorearen sustapenerako estrategia egitea, euskal gizarte-ehuna, parte-hartze soziala eta solidaritate antolatua sendotzen laguntzeko*. Eta 1. ekimenean, *Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sendotzea*; hori ere EHSSSEn sartutako jarduera bat da.

b) **helburuen eta jardueren anbizioa kontuan hartuta, zenbait legealdi-planen bidez zabaldu beharreko esparru-estrategia moduan ulertzen da**²;

c) eragile bakoitzaren (EJ, EHSS...) jarduerak eta lankidetzako beste batzuk biltzen ditu, bai eta horretarako koordinazio-mekanismoak ere; d) 9 arlo ditu, 17.3 artikulua ezarritako 8ak eta nortasunaren arloa.

Gainera, Legearen 17.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, **estrategiak**: diagnostiko bat du euskarri; adierazleak³ ditu, exekuzioaren jarraipenaren urteko txostena egiteko aukera ematen dutenak, bai eta emaitzen ebaluazioen txostena ere; eta **36 jarduera** (2 propio eta 34 jarduera ez-propio) **identifikatzen ditu**, aldean ustez gakoak direnak Legean aurreikusitako helburuak eta diagnostikoan identifikatutako erronkak lortzeko.

Legealdi-planak, berriz, 2018-2020ko aldirako lehentasunezko 12 jarduera propioetako bakoitza zehazten du, ahaztu gabe estrategia eta plana, tresna biziak diren aldetik, eguneratu daitezkeela eta eguneratu egin behar direla besteak beste ebaluazioari eta errealitatearen bilakaerari dagokionez.

...

Legean oinarritutako Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia bat Euskadin abian jartzen den lehen aldia da, sektorearen diagnostiko integrala, bateratua, sail artekoa, berritzailea eta euskal administrazio publiko guztien baterako helburu orokor batzuekin lerrokatua.

² Legeak ez du berariaz aurreikusten bigarren estrategia bat egitea, eta adierazten du egungo strategiaren iraunaldia, edo beste edozeinena, lau urtekoa izango dela. Horren haritik, planak estrategia zabaltzen du, lehenetsitako jardueren ebaluazioaren zerumugatzat legealdia ezartzen dela bermatzeko, egungo gobernuaren erantzukizunaren irismenarekin koherete izanik, baina diagnostiko zabal bat eta estrategia integral bat ditu euskarri, derrigor eta duen nahiagatik bi aldean ustez (Eusko Jaurlaritza eta EEZMn ordezkatutako EHSSko sareak) denborazko zerumuga handiagoa izan behar duena.

³ EHSSSEk aurreikusten zuen *jarraipen-adierazleak eta emaitzen adierazleak* legealdi-planean sartutako 12 jarduera lehenetsien deskribapen xehatuan agertuko direla. Dena den, gainerako jardueretarako ere egin da, baina kontuan hartu behar da 36 jardueretako edozeinen adierazleak beharretan, testuinguruan eta abarretan sor daitezkeen aldatetara egokitu daitezke, eta lehentasunezkoak ez direnak egokitu egin beharko dira. Gainera, adierazi behar da emaitzen adierazleak, kasu guztietan, gida orientagarritzat hartu behar direla (ikusi alderdi metodologikoak 5.2 atalean).

Lehentasunezkoak ez diren gainerako jarduerak erantsitako dokumentu batean aurkezten dira; epeen erreferentziarik gabe, jakina.

***Hirugarrenik*, estrategiak eta planak Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailen⁴ EHSS sustatzeko ekintza artikulatzen dute, lehen aldiz**, Gobernuaren eta EHSSren elkarlan- eta lankidetzeta-gaietan Gobernuaren ekintzaren elementu eragile gisa jarduteko.

Hala, estrategiak **sail arteko izaera du**, eta Eusko Jaurlaritzak eta/edo EHSSk egin nahi dituzten **jarduera berritzaile** asko biltzen ditu, bai eta Eusko Jaurlaritzak, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eta jarduera ekonomikoa eta hura garatzen duten erakundeak sustatzeko esparruan, EHSSak sustatzeko hartzen dituen neurriak ere, Legearen 17.4 artikuluan aurreikusitakoa betez.⁵

Eta barnean hartzen du foru-aldundiek eta tokiko erakundeek, horrekin koordinatuta, beren estrategiak egiteko eta denetarikoa sustapen-neurriak bultzatzeko aurreikuspena, diru-laguntzen urteroko deialdiez gain, legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betez (jarduera ez-propioak).

⁴ Estrategiari eta legealdi-planari dagokienez, *sektore publikoaren sustapen-ekintza, zentzu zabalean*, haren eta EHSSren arteko lankidetzarekin eta elkarlanarekin lotuta dago, dimentsio guztietan. Eta *sustapena, edo sustapen-ekintza zentzu murriztaileagoan edo hertsiaagoan*, erakundeekin eta sareekin, laguntzen, diru-laguntzen, laguntza-programen eta abarren bitartez lagunduz (laguntza teknikoa, ekonomikoa, materiala,...).

⁵ Estrategia eta plana egiten parte hartu dute, eta egungo legealdian hura zabaltzen eta ebaluatzen parte hartuko dute, prozesuaren buru den Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaz gain, honako hauek: Lehendakaritza (Koordinazio Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), Osasun Saila, Hezkuntza Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Lan eta Justizia Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia eta Innobasque.

Horren haritik, strategiaren asmoa da EHSSren sustapenean esku hartzen duten eragileen ekintza hirugarren atalean jasotako helburuekin lerrokatzea, eta sustapen-ekintza aberastea, jarduera berri eta garrantzitsuak sartuz, lehendik existitzen diren neurri guztiak kontuan hartu gabe.⁶

Azken finean, lehenengo aldiz abian jarri da Euskadin lege batean aurreikusitako HSS sustatzeko estrategia bat, sektorearen diagnostiko batean oinarritua, integrala (9 eremu hartzen ditu), baterakoa (Gobernuaren eta EHSSren arteko lankidetzaren abiapuntu izanik), zeharkakoa Gobernuko sailekiko (sailen artekoa), berritzailea eta euskal administrazio publiko guztien helburu orokor batzuekin lerrokatua.

Azkenik, legeak ezartzen duen strategiaren ezaugarrietatik harago, eta sortutako eztabaiden eta estrategia egiteko prozesuan hirugarrenekin egindako egiaztapenen ondorioz (bereziki, Generalitatearekin eta Kataluniako HSSko erakundearen Taularekin), nahiago izan da estrategia hori eta gerora egin daitezkeen estrategiak eta planak honelakoak izatea:

- **jarduera garrantzitsu ugari** egitea, haietako asko berriak, eta diagnostikotik eratorritako helburuekin eta erronkekin koherenteak direnak;
- eta **tresna biziak** izatea, errealitatean gerta daitezkeen aldaketa esanguratsuei edo strategiaren zabalkundearen esperientziatik eratorritako direnei erreparatzeko, jarduera berriak sartzeko aukera izanik eta/edo aurrez sartutako jarduerak eguneratzeko edo zehazteko aukera izanik, behin abian daudela; bereziki, aurretiko analisi edo diagnostiko bat aurreikusten badute.

⁶ Legearen 19. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gizarte-politiken gaietan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Sailak egin beharreko *Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sustapen-neurri buruzko urteko txostenak* EHSSren sustapen-ekintzen multzoa jaso behar du, gutxienez.

Bestalde, estrategia eta plana, hasierako faseetan, beharrezko **zuhurtasun eta errealismoz** zabaldu behar dira, ezaugarri horiek dituen lehendabizikoa izanik Euskadin eta koordinazioko egiturak umotzeko eta bi aldeek emandako denbora, esleitutako baliabideak eta abar pixkanaka handitzeko prozesu bat egiteko beharra kontuan hartuta.

2 Estrategiaren oinarriak

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak dioenez, HSSko erakundeek:

“...premiei eman beharreko erantzuna eta instituzioekiko lankidetzak kritikarako, salaketarako eta alternatibak proposatzeko gaitasunarekin konbinatzen dituzte, funtsezko ekarpena, ekarpen bereizgarria, eginez honako hauei: a) ematen dituzten zerbitzuen xede diren pertsona, familia, talde eta komunitateei, eskubideak sustatzeari eta benetan erabiltzeari eta gaitasunak eta bizi-proiektuak garatzeari dagokienez, betiere ahalik eta autonomiarik handiena utziz; eta b) euskal gizarte osoari, hain zuzen ere solidaritateari eta elkar laguntzari, partaidetzari, kohesio sozialari, politika sozialak eta erantzukizun publikoko sistemak sustatzeari, zerbitzu-hornikuntzari (hots, horrelako zerbitzuak diseinatzea, ematea, ebaluatzea eta hobetzea) eta gobernantzari dagokienez” (zioen azalpena, bederatzigarren

EHSSSEren oinarria ekarpen –historiko, eguneko eta etorkizuneko– hori onartzean datza, EHSSren ezaugarria dena eta izaten jarraitu behar duena, eta, horrez gain, **bi ustetan**:

- a) **Helburuei dagokienez, garapen jasagarriak dimentsio hirukoitza duela (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), aldi berean egin beharrekoa, Agenda 2030en eta Europa 2020 Estrategian ezarrita dagoen moduan, eta norabide guztietan egin behar dena.**

Gizarte-garapena, zehazki, garapen ekonomikoa posible egiteko baldintza bat ere bada. Ez da soilik aberastasuna sortzea, ondoren banatzeko eta ekonomia-politiken nahi gabeko eraginak gizarte-politiken bidez zuzentzeko. Horrez gain, beharrezkoa da giza kapitala eta gizarte-kapitala sustatzea, aberastasuna sortzeko eta inor alboan uzten ez duen eta desberdintasunetan eta prekarietatean sakontzen ez duen hazkunde barneratzailea sustatzeko, aukerak sortuz eta emakume nahiz gizon guztientzat nolabaiteko emaitza-berdintasun bat sortuz.

Eta gizarteratzea inklusiboa izan behar duen gizarte-, hazkunde- eta garapen-eredu jakin baten emaitza da, eta herritarren eskubideen erabilera efektiboarena, edozein abagunetan sustatu beharrekoa, eta ez da hazkunde ekonomikorako aukera huts bat soilik. Pertsonak eta haien bizi-kalitatea dira helburua, eta interes orokorra edo guztien mesedea ororen gaintetik jarri behar da.

Hori da autogobernua berreskuratu zenetik legegileek eta exekutiboak partekatu eta indartu duten euskal gizarte- eta garapen-eredua, aldi berean aberastasuna eta enplegua sortuz, alde batetik, eta Ongizate Estatua eta aukeren eta emaitzen berdintasunaren aldeko ekintza positiboa eraikiz, bestetik; horien oinarrizko adierazpenetako bat erantzukizun publikoko sistemak finkatzea eta erantzukizun publikoko prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea aitortzea, eskubide subjektibo bat den aldetik: diru-sarreraren bermea, etxebizitzarena, gizarte-zerbitzuena, eta abar.

- b) **Bitartekoei dagokienez, HSS indartzea eta sektore arteko lankidetzak (publikoa, pribatua, soziala) eta, bereziki, elkarrizketa zibilarrena⁷ eta lankidetzak publiko-soziala gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eta esparru horretako erantzukizun publikoko zenbait sistema eta espazioren kudeaketan (eredu mistoa), koherentea dela bultzatu nahi den eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenaren helburuetan aurrera egiteko aukera ematen duen gizarte-, garapen- eta gobernantza-ereduarekin.**

EHSSko erakundeek eta sareek eta sektore publikoak lankidetzan dihardute eta jarraitu behar dute gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gizarte-politikak eta sistema publikoak sustatzen, erantzukizun publikoan, lankidetzak publiko-sozialean eta gobernantza parte-hartzailean oinarritutako kudeaketa-eredu bat erabiliz (eredu mistoa).

⁷ <<Elkarrizketa zibilarren printzipioari jarraikiz, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzailerak eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasean, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraikiz, kalterik egin gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunei>> (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 7. artikulua, 1. atala).

Gainera, EHSSko erakundeentzat eta sareentzat betebeharrak bat eta erronka bat da funtzioen orekari eustea (zerbitzu-hornikuntza, gaitasun kritikoa, salaketakoa eta alternatibak proposatzekoa...) eta gizarte- eta garapen-ereduari buruzko gizarte-elkarrizketan aktiboki parte hartzea, orientabide, irizpide eta proposamen konkretuak elkarrizketa zibilaren bidez eramanez.

Azken finean, estrategiaren euskarria gizarte- eta garapen-eredu bat da, lankidetzaren publiko-sozialarekin, elkarrizketa zibilarekin eta eredu mistoarekin koherentea dena, erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.

EHSS beharrezkoa da agenda globala eta Europakoa inplementatzeko, Euskadiko testuingurura egokituta; eta euskal gizarte- eta garapen-eredua definitzen lagundu du eta laguntzen du, bai eta eredu hori politika publikoen diseinu, exekuzio, ebaluazio eta eguneraketan zabalitzen ere; horrez gain, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan ongizate-sistemak finkatzen eta zabalitzen lagundu du, erantzukizun publiko, elkarrizketa zibil eta lankidetzaren publiko-sozialaren printzipioak kontuan hartuta.

...

“Estrategiaren euskarria gizarte- eta garapen-eredu bat da, lankidetzaren publiko-sozialarekin, elkarrizketa zibilarekin eta eredu mistoarekin koherentea dena, erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko”.

EHSS eta lankidetzaren publiko-soziala indartzeak euskal gizartearen gaitasuna handitzea dakar, une honetan ditugun erronka handietako batzuei erantzuteko eta aurrera egiteko gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzaileagoa eraikitzen, pertsonak ardatz dituen, ondasun erkidera bideratua, jasangarria, berritzailea eta, lankidetzaren abiapuntu hartuta, etorkizuna modu proaktiboan eraikitze gaitasunak dituen.

3 Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren diagnostikoa

3.1 Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa eta nortasuna

Legeak bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluetan ematen duen definizioarekin koherente izanda, EHSS egoitza eta jarduera EAEn kokatuta dauzkaten *gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeek* osatzen dute.

A) **Gizarte-ekimeneko erakundeak diren aldetik**, ekimen formalizatuak dira (formalki eratuak eta nortasun juridiko propioa dutenak):

- **borondatezko jardunekoak** (gizarte-oinarria erakundearekin lankidetzan borondatez aritzen diren pertsonak osatzen dutena, erabat edo partzialki);
- **gizarte zibilekoak** (gizarte zibilaren parte direnak eta handik eta harentzat sortzen direnak);
- **pribatuak**; hau da, kudeaketa autonomoa dutenak eta beste sektore batzuekiko independenteak direnak (instituzionalki administratiboki bereziak eta autogobernatuak);
- **irabazi-asmorik gabekoak** (ondasun ekonomikoen banaketa xede ez dutenak; haien irudi juridikoak balizko edozein irabazi berri ere bertan inbertitzeko obligazioa dakar);
- **eta parte-hartzaileak** (erabakiak hartzeko parte hartzeko moduak egokituz, haren modu juridikorako aplikagarria den araudiak ezartzen duena betez);

B) **Gizarte-arloko esku-hartzeko erakundeak** diren aldetik, garatzen dituzten jardueren helburua gizarteratzea, garapenerako lankidetzeta eta biztanleria osoaren eskubideen aitortza sustatzea da, bai eta zaugarritasun- edo bazterkeria egoeran, babesik gabe dauden, desgaitasunen bat edo/eta mendekotasunen bat duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateek horren erabilera efektiboa egitea ere, gizarte-desberdintasunen, bazterkeriaren, babesik ezaren eta indarkeria matxistaren aurka borrokatuz, eta gizarte zuzen, solidario, berdintasunezko, parte-hartzaile eta demokratikoago batera bideratutako beharrezko gizarte-transformazioan aurrera eginez.

EHSSLn aurreikusitakoa betez, estrategiak diagnostiko bat du euskarri; eta diagnostiko hori egiteko kontuan hartu dira: a) 2015ean amaitutako Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren datuak; b) estrategia egiteko prozesuaren baitan erakundeekin eta sareekin dinamizatutako tailerretan (eztabaida-taldeak) egindako analisi kualitatiboa.

Liburu Zuriaren azterketaren helburua bat dator, erabat, legeak egiten duen EHSSko erakundeen definizioarekin, eta haren helburuetan sartuta daude garapenerako lankidetzak eta legearen 4. artikulua adierazten dituen eremuetako bakoitza,⁸ bai eta artikulua horren 3. atalean zehazten diren jarduerak ere.⁹

Diagnostikoa EHSSSE jasotzen duen dokumentuan ikus daiteke, xehetasun osoz. Ondoren, zifra nagusiak eta diagnostiko kuantitatiboaren datu nagusien laburpen bat aurkezten dira.

Adierazi berri ditugun gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeen ezaugarriak kontuan hartuta, hurrengo grafikoan EHSSko erakundeen nortasun-ezaugarriak ageri dira, haiek sortu dituen gizartearekiko lotura eta konpromisoa azpimarratuz, zerbitzatzen dutena eta eraldatu nahi dutena, gizarte-justizia handiagorantz aurrera eginez, elkartasuna bultzatuz eta partaidetza, eskubideak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa sustatuz.

⁸ Gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena eta eremuen, politiken eta sistemen arteko elkarrekintzarako espazioak, adibidez, sozioedukatiboa, soziosanitarioa, soziojudiziala, soziokulturala, etab.

⁹ Sentsibilizazioa, salaketa, arau-prozesuetan eta elkarrizketan parte hartzea; solidaritate antolatua eta parte-hartze sozialaren sustapena eta artikulazioa; beharrak hautematea, ikerketa eta berrikuntza; zerbitzuen hornidura, erantzukizun publikoak edo bestelakoak, eta esku-hartzeko beste jarduerak edo proiektu batzuk egitea.



Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria (2015)

3.2 Zifra nagusiak

Estimatu da EHSS **3.500 erakunde** osatzen dutela (2.000k Bizkaian, 1.000k Gipuzkoan eta 500ek Araban), haietan **kontratu bidez ordainduta 36.000 pertsonak** egiten dute lan (EAEko biztanleria okupaturaren % 4) eta **125.000 boluntariok**.

Erakundeek 2013an kudeatutako bolumen ekonomikoa 1.451 milioi eurokoa izan zen (1.051 Bizkaiari dagozkio), **euskal BPGd-ren % 2,2**.



Zein da sektorearen ekarpena enplegua sortzen?



Pertsona ordainduak **36.000**

EAEko langileen (lanean diharduen populazioaren) %4

		ZB	%
Pertsona ordainduak	ARABA	3.037	8,46
	BIZKAIA	26.336	73,35
	GIPUZKOA	6.534	18,20
	CAPV	35.907	100
Pertsona boluntarioak	ARABA	13.967	11,16
	BIZKAIA	80.262	64,11
	GIPUZKOA	30.974	24,74
	CAPV	125.203	100,00

Zein da sektoreko boluntariadoaren ekarpena gizartegintzan?



Pertsona boluntarioak

125.000

EAEko boluntariadoaren %80 inguru

Zein da sektorearen ekarpena ekonomian?



Euskal BPGaren **%2,2**

	2013an kudeatutako bolumen ekonomikoa	%	lurraldearen BPGaren %	euskal BPGaren %
ARABA	159.429.499,3	10,99	1,50	0,24
BIZKAIA	1.051.356.490	72,46	3,13	1,59
GIPUZKOA	240.229.282,1	16,56	1,10	0,36
CAPV	1.451.015.271,62	100	2,20	2,20

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria (2015; 2014ko jarduera-datuak, 2013ko datu ekonomikoak)

Oso sektore **heterogeneoa eta atomizatua** da. Lurraldean bereziki sustraitutako erakunde txiki ugari daude, gai direnak haren berariazko ezaugarriari erantzuteko, komunitatearen parte-hartzea aktibatzekeo...

Denetarik ere eremuetatik jarduten dute; adibidez, sozial-zeharkakotik edo herritarretik, garapenerako lankidetzatik, aisialditik, osasunetik, enplegutik... Lehen biak dira erakundeen kopuru handiena biltzen dutenak.

Erakundeen % 32ren aurrekontua 12.000 eurokoa edo txikiagoa da, eta % 46 soilik pertsona boluntarioz osatuta daude. Bietan, eremu **sozial-zeharkakoa** eta aisialdikoa nabarmentzen dira. Eta **Gipuzkoa**, boluntario ugari dituzten erakundeen ehuneko handiena duen herrialdea den aldetik.

% 42k 20 urtetik gorako **ibilbidea** du, eta % 13k duela 5 urte baino gutxiago ekin zion bide horri. Sektore bizia da, beraz.

10etik 8ren jarduera ez da EAetik kanpo zabaltzen. % 35ek lurralde historikoan egiten du lan, eta % 27 gehigarri batek, **eremu geografiko** txikiago batean. Oro har, tokiko izaera duten eta lurraldeari lotutako erakundeak dira.

Erakundeen % 95ek **zerbitzuren bat ematen du**, eta % 75ek **beste funtzio batzuk** egiten ditu gainera. Zerbitzuak hornitzera bideratutako erakundeen pisua handitu egin da sektorean, bai eta zerbitzuen horniduraren pisua ere, zenbait erakundetan.

Erakundeek 316 pertsonako **gizarte-oinarria** dute batez beste; hala ere, kasuen erdiak 100etik beherakoak dira. Hamarretik lauren gizarte-oinarria handitu egin zen inkestaren aurreko hiru urteetan, eta % 36renak berdin eutsi zion. Erakundeen % 87 **boluntarioz** osatuta daude gehienbat.

10etik 4k boluntarioen kopurua handitzea lortu zuten inkestaren aurreko hiru urteetan (krisialdian, beraz), eta % 9k soilik galdu ditu boluntarioak. % 54k ordainpeko langileak ditu, baina % 13an soilik dira gehiago ordainpeko langileak boluntarioak baino.

Sektorearen finantzaketaren % 54 jatorri pribatukoa da, eta finantzaketa propioa dutenak % 38ra iristen dira (donazioak, zerbitzuak ematea eta produktuak saltzea, erakunde pribatuen diru-laguntzak eta beste diru-laguntza pribatu batzuk kenduta). % 42k diru-sarrera pribatu handiagoak ditu publikoak baino, eta % 12k ez du diru-sarrera publikorik. % 13 diru-iturri bakar baten mende dago, eta % 21ek bost edo gehiago ditu.

Erakundeen oraina **krisiak** markatzen du oraindik ere, eta etorkizuneko hautemateko moduan eragiten du.

2014an, soilik % 22k uste zuen hurrengo hiru urteetan errazagoa izango zela helburuak betetzea. Krisiarekin, gizarte-beharrak handitu egin ziren eta konplexuagoak bihurtu ziren. Erakundeen % 52tan erabiltzaileen kopurua handitu egin zen inkestaren aurreko hiru urteetan; erakundeen erdietan aldaketak hauteman zituzten beharrei zegokienez, eta % 40an, profilaria zegokienez, eta horrek esku-hartzea egokitzea eskatzen zuen.

Gainera, erakundeen % 18k plantilla murriztu zuen, eta % 67k berregituraketa motaren bati ekin behar izan zion (zereginetan, funtzioetan, lanpostuetan, lanaldietan, soldatan...). % 38an, bolumen ekonomikoa txikitu egin zen 2008az geroztik, eta soilik % 5ek eutsi zion bolumen ekonomikoari.

Krisiak batik bat diru-laguntzen mende irauten duten erakunde txikienei, garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei eta erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuak ematen dituzten edo sektoreari berari zerbitzuak ematen dizkioten erakundeei eragin zien.

3.3 Erronkak eta ikuspegia

Liburu Zuriaren esparruan, estatistikoki adierazgarria den lagin batetik bildutako datuen analisiari eta sektoreko erakundeen beraien eta sareen egoera partekatua gaineko hausnarketari esker, 10 erronka identifikatu ziren, eta horietako bakoitzak zerikusia du EHSSren **ikuspegi** baten parte diren gako batzuekin.

ERRONKAK	
Nortasuna	0. ERRONKA. Gure nortasun-ezaugarriak sustatzea.
Jarduera	1. ERRONKA. Sektorearen aniztasunari eustea. 2. ERRONKA. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea.
Pertsonak	3. ERRONKA. Herritarrekiko lotura handitzea eta gizarte-oinarria indartzea. 4. ERRONKA. Erakundearen eta haren kideen arteko lotura indartzea eta lan-baldintzak hobetzea.
Baliabide ekonomikoak	5. ERRONKA. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea.
Kudeaketa	6. ERRONKA. Erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa sendotzea, balioekin eta “krisi-garaiekin” koherente izanik.
Kanpo-harremanak	7. ERRONKA. Gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea, eta komunikazio-ahaleginak biderkatzea. 8. ERRONKA. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
Sektoreko harremanak	9. ERRONKA. Esku-hartze zuzeneko erakundeen arteko lankidetzatza bultzatzea (oinarriko erakundeak). 10. ERRONKA. Sektorearen egituraketan aurrera egitea.

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria (2015)

IKUSPEGIA
1. Askotariko hirugarren sektore sozial bat
2. alternatiba transformatzaileak sustatzeko gai dena
3. gizarte-oinarri zabalarekin
4. erakundeen eta haiek osatzen dituzten pertsonen arteko lotura sendo bati eta kalitateko enpleguari eusten diona
5. jasangarria eta autonomoa
6. indartua eta koherentea
7. gardena eta aitortua
8. beste eragile batzuekin lotuta eta aliatuta
9. harremanak barrutik estutzen dituena
10. eta ongi artikulatuta dago.

Iturria: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria

Ondoren, EHSSSEren 9 eremuak eta Liburu Zurian identifikatutako erronkak erlazionatzen dituen laburpen-taula bat sartu da. Eremukako diagnostiko kuantitatiboan eta kualitatiboan sakontzeko, ikusi EHSSSEren dokumentua.

Estrategiaren eremuen eta sektorearen erronken arteko lotura

EHSSL	ERRONKAK (EHSSOL)
1. Gizarte-oinarria garatzea eta erakundeetan parte hartzea	→ 2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea. 3. Herritarrekiko lotura handitzea eta gizarte-oinarria indartzea. 4a. Erakundearen eta haren kideen arteko lotura indartzea.
2. Erakundea eta kudeaketa sendotzea	→ 6. Erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa sendotzea, balioekin eta “krisi-garaiekin” koherente izanik. 7b. Komunikazio-ahaleginak biderkatzea.
3. EHSSren egituraketa eta erakundeen arteko elkarlana	→ 1. Sektorearen aniztasunari eustea. 9. Esku-hartze zuzeneko erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea. 10. Sektorearen egituraketan aurrera egitea.
4. Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea	→ 4b. Lan-baldintzak hobetzea. 5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea. 7a. Gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea.
5. Inbertsioak eta azpiegiturak	→ 5. Erakundeen jasangarritasun ekonomikoan aurrera egitea.
6. Sektore publikoarekiko lankidetzaren bultzatzea	→ 8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
7. Enpresekiko lankidetzaren bultzatzea	→ 8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena	→ 8. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta finkatzea.
9. Nortasuna	→ 0. Gure nortasun-ezaugarriak sustatzea. 1. Sektorearen aniztasunari eustea. 2. Funtzioen oreka eta orientabide transformatzailea.

Erronka batzuk eremu batekin baino gehiagorekin daude lotuta, taulan ikus daitekeen moduan.

4 Estrategiaren laburpena

4.1 Helburu orokorrak

Hemen aurkeztutako helburu orokorrak orientaziozko esparru orokor eta partekatu gisa ezarri dira, EHSSSEren eta foru- eta tokiko estrategien koordinazioa bermatzeko, legean aurreikusitako moduan, EHSSSE eta foru- eta tokiko estrategiak bere errealitatera egokitzeo aukera kontuan izanda, eta helburu horiek eta beren lurralde-eremurako interesgarriak diren beste adierazle batzuk kontuan hartuta.

Hala, diagnostikoa eta legearen aurreikuspenak kontuan hartuta, eta estrategia indarrean dagoen aldian euskal BPG handitzen ari den agertoki batean, hurrengo helburu orokorrak ezarri dira, eta horiek lortzeko euskal administrazio publikoak, EHSSk eta sustapenean inplikaturako beste eragile batzuek hartuko dute parte (haietako bakoitzarekin lotutako helburuen eta emaitzen xehetasunak EHSSSEren dokumentuak ikus daitezke).

1

SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA SUSTATZEA

- *Sustapen-estategiak egitea, zabaltzea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea, diru-laguntzen urteko deialdiak egitea eta beste sustapen-neurri batzuk hartzea* euskal administrazio publikoen aldetik, EHSSLren 18. artikuluan aurreikusitakoa betez.
- Euskal sektore publikoak eta EHSSk *elkarrizketa zibilerako tresnak definitzea eta garatzea*, EHSSLren 7. artikuluan aurreikusitakoa betez.

2

LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA

- *Lankidetzaren publiko-sozialaren, elkarrizketa zibilaren (politika publikoen fase guztietan parte hartzea, egikaritze-fasean barne) eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren eredu mistoaren garapena, EHSSLren 6. artikuluko e hizkian, 7. artikuluan eta hirugarren kapituluan ezarritakoa betez.*
- *Arretako eredu komunitarioa sustatzea, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin koherente izanik.*

3

SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ

- *EHSSko erakundeen gizarte-oinarria indartzea.*
- *Krisiaren ondoren, asoziazionismo txikia eta ertaina indartzea, erakunde zibikoei, osasunaren esparrukoei eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei arreta berezia jarrita.*
- *EHSSko erakundeei eta sareei laguntzeko sistema integral bat definitzea eta garatzea, enprekin lotuta existitzen den moduan, lehendik zeuden ekimenen oinarriaren gainean (laguntza publikoen eta banku-fundazioen deialdiak, boluntarioen agentziak, Indartu programa... eta SPRI, Euskalit, Hobetuz-Lanbide...).*
- *Laguntzen deialdiak sinplifikatzea eta antolatzea.*
- *Finantzaketa propioaren eta pribatuaren ehunekoari eustea, edo pixka bat handitzea, (erakundeen) guztizko finantzaketa-erakundeetara, finantzaketa-iturriak dibertsifikatzea eta finantzaketa propioa erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurakoak ez diren interes orokorreko jardueretara bideratzea.*
- *Baliabide materialen (azpiegiturak) hobekuntza eta erakundeen inbertsio-gaitasuna eta likidezia garatzea.*

4 **BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA** (euskal sektore publikokoak ez direnak)

Europar Batasuneko helburuekin bat datozen eta haren kofinantzaketa duten gizarte-arloko esku-hartzeko proiektuak garatzea, bai eta EHSSko erakundeen eta enpresen arteko lankidetzaren ekimenak ere.

5 **SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA**

- *Aurrerapenak nortasun partekatuaren definizioan, sektoreko kide izatearen zentzua handitzea eta koherentzia handiagoa bilatzea (sozialki proposatzen dena barnetik bizitzea).*
- *Aurrerapenak sektorearen egituraketan.*
- *Sektorearen errealitatearen eta haren gizarte-ekarpenaren ezagutza hobetzea.*

6 **I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA**

- *I+G+b soziala bultzatzea EAEn eta lurralde bakoitzean.*
- *Datuetan oinarritutako EHSS sustatzeko politiken kudeaketa, EAEn, eta lurralde bakoitzean, kontuan hartuta, gutxienez: a) sektorearen egoerari eta bilakaerari buruzko bi urtean behingo txostena (EHSSLren 25.2 artikulua) eta ondoz ondoko liburu zuriak; b) zabaldutako ondoz ondoko estrategien ebaluazioak (helburuekin lotutako emaitzen adierazleak, eta jarduerekin lotutako jarraipen-adierazleak); c) sustapen-neurriei buruzko txostenaren emaitzak (EHSSLren 19. artikulua).*

4.2 Jarduerak

Atal honetan, estrategiaren laburpen bat eskaintzan da lehenik, estrategia osatzen duten 34 jarduerak labur eta modu erlazionalean aurkezteko; eta, horrez gain, bi jarduera ez-propio eta 36 jarduera atalka xehatuta erakusten dituen “mapa” bat. Azkenik, jardueren zerrenda agertzen da, eta ondoren, strategiaren 9 eremuak eta haietako bakoitzarekin lotutako jarduerak (jarduera bat eremu batekin edo gehiagorekin lotuta egon daiteke).

4.2.1 Estrategiaren laburpena

1 SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA SUSTATZEA

Jarduera ez-propioak

Bi **jarduera ez-propioek** Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak ezartzen dituen betebeharreri erantzuten diete, eta, batik bat, euskal sektore publikoaren osotasunaren ekintza legearen helburuekin lerrokatzeko funtsezko alderdiak dira.

- **HSS sustatzeko foru- eta toki-estrategiak zabaltzea**, EHSSSE bezala aurkeztu berri diren helburu orokorrekin lerrokatu behar direnak, eta hartara, EHSS sustatzeko ekintzaren orientazioa ezartzen da, hartan parte hartu duten eragileek partekatuko dutena, eta, bereziki, euskal administrazio publikoek.
- **Sektore publikoaren osotasunarekiko elkarrizketa zibila sustatzea**, maila exekutibo eta legegilean (eusko legebiltzarra eta batzar nagusiak), 1. jarduerak (jarduera propioa) berariaz jasotzen duen arren elkarrizketa zibilari buruzkoa, eta EHSSSEren zeharkakotasunari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzari dagokionez.

34 jarduera propioak atal hauetan biltzen dira.

1 SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA ETA ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA

Estrategiaren zeharkakotasuna (Ej) eta EEZM indartzea

- **EHSS**Eren zeharkakotasuna **Eusko Jaurlaritzan**, sustapen-ekintza eta EHSSrekiko lankidetzak bultzatzeko Gobernuaren sailetatik. **Eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia indartzea**, Legearen 7. artikulua 3. atalean aurreikusitakoa betez, proiektu eta ekimen konkretuak oinarri hartuta operatibitatean eta baterako lanean irabazteko moduan.
- Gainera, atal honetan **zenbait sailen berariazko hiru jarduera** sartu dira, **aurrekoen maila desberdinekoak, baina Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasunean aurrerapena adierazten dutenak**. Hauek dira:
 - a) etxebizitzaren programa sozialak eta gizarteratzeko etxebizitzaren sare bat bultzatzea;
 - b) kirolaren eta kulturaren eremuetatik, gizarteratzeko programa pilotu bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea;
 - c) EHSSko erakundeetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa sustatzea, Gobernuaren gai horretako laguntza-lerroak sektoreari egokituta, beharrezkoa den neurrian.

Beste jarduera batzuek ere ematen dute zeharkakotasunean aurrera egiteko aukera, baina nahiago izan da beste atal batzuetan kokatu, haien edukiak kontuan hartuta. Esate baterako, gizarte-azpiegituren sustapen-plana “baliabideei” dagokien atalean kokatu da.

Eredu mistoa eta eredu komunitarioa

- **Eredu mistoa bultzatzea** gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko, **eta, esparru horretan, hitzarmen soziala eta itunak** bultzatzea, zerbitzu horien horniduran lankidetzaren publiko-soziala antolatzeko funtsezko tresnak diren aldetik.

Adierazi dugu elkarrizketa zibilaren printzipioak eta eredu mistoak elkarren beharra dutela eta strategiaren oinarrian eta EHSSLn dauden gizarte-ereduarekin eta sektoreen arteko erlazioaren bidez lotzen direla elkarrekin. Jarduera horiek, beraz, funtsezkoak dira, strategiaren nukleoa edo zutabea dira, eta haien inguruan bilatu behar da, derrigor, euskal administrazio publikoen mailen arteko koordinazioa.

- **Eta sektorearen erakundeetan arretako eredu komunitarioa bultzatzea**, esku-hartzea eta kudeaketa eredu horretara eta horrekin koherenteak diren beste estandar batzuetara egokituz; esate baterako, *Gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparrura.*

Ulertzen da erantzukizun publikoko sistemek gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan berentzat nahi dituzten arretako eredu komunitarioaren ezaugarriak indartzen dituela eredu mistoak: arretaren hurbiltasuna, pertsonalizazioa eta integralitatea (zeharkako jarraitua eta luzetarako arretakoa), hartzaileen parte-hartzea, eta abar.

- **Erakundeak indartzea**, guztiek izan dezaten aukera: gizarte-oinarria handitzeko eta zaintzeko, eta parte-hartzea sustatzeko, nortasunaren funtsezko alderdi bat eta gizarte-legitimitatearen oinarri bat den aldetik; esku-hartzea eta kudeaketa hobetzea; beren denetariko funtzioak (funtzioen oreka) garatzeko behar dituzten baliabide guztiak eskura izatea, gakoak diren zenbait gairi ekinez, bereziki (esate baterako, finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa), autonomia handiago izateko, eta azpiegiturak eskura izatea, oinarrizko jarduerak garatzeko.

Jarduera batzuk berariaz ATEetara bideratuta daude eta beste batzuk ez; hala ere, kasu guztietan, arreta berezia jarri behar zaie, sektorearen aniztasunari eusteko, eta erakunde horien ekarpenak sektorearen % 79 adierazten du. Bestetik, erakundeen ezaugarriei egokitutako laguntzak eta baliabideak hobetu nahi dira (ATEak/erakunde handiak; boluntarioen/boluntarioak dituzten erakundeak; jarduera ekonomiko garrantzitsua duten eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen duten/ez duten erakundeak).

Gainera, sektoreko erakundeek beraiek iradokitzen dute, legealdi honetan, euskal administrazio publikoek, sustapen-ekintzan, ATEen nolabaiteko diskriminazio positiboa egitea; batik bat, eremu zibikokoei (hartzaileek beraiek osatutakoak) eta garapenerako nazioarteko lankidetzako erakundeei dagokienez, kontuan hartuta biak direla krisian zehar diru-laguntzen murrizketak neurri handienez jasan dituztenak.

Azkenik, atal honetan, Legearen 16. artikuluan aurreikusitako betebeharren irismena argitzera bideratutako ekintza bat jaso da; bereziki, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez duten ATEentzat, kasu horietan zenbait betebeharrak –kanpo-ikuskaritzak egitea, esate baterako– aplikagarria ez dela ulertuta.

4

BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA (euskal sektore publikokoak ez direnak)

- **Euskal administrazio publikokoak ez diren eragileekiko eta, bereziki, Europar Batasuneko eta enpresetako eragileekiko lankidetzak.** EBren kasuan, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan Euskadik EBn duen posizionamendua hobetu nahi da, lankidetzak publiko-sozialaren bidez, eremu horretan EBren helburuekin lerrokatutako izaera estrategikoko ekimenak sustatu ahal izateko (horietako bat sektoreko erakundeetan arretaren eredu komunitarioa sustatzea da). Eta enpresei dagokienez, EHSSk eta euskal enpresek partekatutako esparru baterantz aurrera egin nahi da, bien arteko lankidetzaren helburu, irizpide eta edukien inguruan, eta hurrengo urteetan lankidetzan aurrera egiteko aukera emango duen programa pilotu bat sustatzea, irizpide horiekin lerrokatuta, eta jadanik existitzen diren esperientzien analitiko eta hedapenetik, eta horiek sustatuz joatea.

5

SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA

Nortasuna eta koherentzia

- **Nortasuna eta koherentzia.** Atal honetan, sektorearen nortasuna indartzearekin loturako jarduerak sartzen dira, sektoreak partekatutako nortasunaren eta diskurtsoaren eraikuntzan aurrera egiteko, bai eta erakundeek sektorearekiko identifikazioan eta nortasun partekatu horretan aurrera egin dezaten ere (kide izatearen sentimendua).

Gainera, erakundeen koherentziarekin lotutako jarduerak sartu dira, eta, zehazki, intzidentzia sozialaren eta politikoaren funtzioa betetzea (eskubideak sustatzea eta haiek urratzen diren egoerak salatzea), aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzea, erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunari arreta berezia jarrita, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak haietan sartzea ere, legezko betebeharretatik harago.

Horren haritik eta erakundeen eta haien nortasunaren (misioa eta balioak) arteko koherentziari dagokionez, uste da funtsezkoa dela erakundeen baita bizi denaren eta sozialki proposatzen denaren arteko koherentzia ahalik handiena izatea. Nortasunaren adierazpena da, batik bat, koherentzia, baina legitimitate-iturri garrantzitsua ere bada, eta horrek bilaketak sektorearen onarpenarekin bat egiten du.

5 SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA

Sektorearen egituraketa

- **Sektorearen egituraketa.** Sektorearen egituraketan, maila guztietan egin behar da aurrera, kontuan hartuta guztiak direla garrantzitsuak: a) esku-hartzeko erakundeen arteko lankidetzaren horizontala; b) gobernantza, barne-antolaketa, parte-hartzea eta sareko lana, sare bakoitzaren baitan; c) sektorea osorik artikulatzea, lurralde mailan zein eremuka, eta Sareen Sarearen eta zenbait eremuren (esate baterako, emakumeen asoziazionismoa) arteko lotura egitea.

5 SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA

Sektorearen ezagutza eta onarpena

- **Sektorearen ezagutza eta onarpena.** Herritarrek, sektore publikoak, beste sektore batzuek eta beste gizarte-eragile batzuek sektorearen ezagutza eta onarpena, eta haren ekarpena hobetzeko jarduera gako batzuk bultzatu nahi dira, erakundearen ebaluazioaren gardentasunarekin eta kulturarekin, erakundearen gizarte-ekarpenaren identifikazioarekin eta hedapenarekin (erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduraren guztizko balioa eta balio erantsia) eta kanpo-komunikazioko ekintzekin zerikusia dutenak (lau urtez behingo komunikazio-plana, bozeramailetzak sustatzea, komunikabide sozialekiko akordioak, bi urtez behingo biltzarra eta maiatzaren 12ko jarduerak).

Sektorearen ezagutza eta onarpena gizarte-oinarria indartzearekin eta baliabide ekonomikoak dibertsifikatzearekin lotuta dago. Gainera, guztizko balioaren eta balio erantsiaren jarduera zuzenki lotuta dago elkarrizketa zibilaren eta eredu mistoaren sustapenarekin.

6 I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

I+G+b soziala

- **I+G+b soziala.** Beharrak hautematea eta berrikuntza funtsezko funtzioak dira sektore publikoaren lankidetzaren bidez sustatu nahi diren erakundeetan.

Hain zuzen ere, gizarte-berrikuntzari laguntza publikoa eman nahi zaio, eta EHSSren eta Innobasqueren artean lankidetzaz-lerro bat bultzatu. Gainera, sektoreen lankidetzaren bidez, gizarte-ekimen berritzaileetan inbertitzeko sustapen-ekimen bat diseinatu eta bultzatu nahi da, existitzen diren esperientziak kontuan hartuta; esate baterako, Erresuma Batukoa.

Eta ekimen konkretuak bultzatzea erakundeentzat eta sektore publikoarentzat bereziki interesgarriak diren esparruetan; esate baterako, “silver economy”, alde batetik, eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan gazteen ekintzailatza, bestetik; betiere, bi gizarte-erronka handiei erantzun batzuk ematen saiatuz: zahartze aktiboa, osasungarria, parte-hartzailea..., eta gazteen enplegua.

Jarduera horiek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzearekin lotuta daude, bai eta sektorearen eta haren ekarpenaren onarpenarekin ere. Bestalde, ekintzailatzaren sustapena eta sektorean gazteak sartzea sektorearen berrikuntzarekin eta erakundeen gizarte-oinarria indartzearekin (intraekintzailatza) lotuta daude.

Gainera, gizarte-inbertsioa, batetik, eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatzera bideratutako jarduerak eta erantzukizun publikokoak ez diren ekimen, proiektu eta zerbitzuak garatzeko lankidetzan jarduten duten eragileen jarduerak, bestetik, gakoak dira berrikuntza sustatzeko eta funtzioen eta autonomiaren arteko orekarako.

6 I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

Errealitatearen analisisa eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa

- **Errealitatearen analisisa eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa.** Azken atal honetan, estrategia bera eta EHSSren sustapen-neurriak eguneratzeko ikerketa- eta ebaluazio-ziklo bat (EHSSren egoerarena, sustapen-neurriena eta strategiaren zabalkundearena) sortzera bideratutako jarduerak sartzen dira, existitzen diren edo/eta legean aurreikusitako informazio- eta diagnostiko- edo ebaluazio-tresnak abiapuntu hartuta.

4.2.2 36 jardueren xehakapena (mapa)

JARDUERA		HELBURUA
Sustapeneko foru- eta toki-estrategiak (ez-propioa)	Helburu orokorrekin lerrokatuta, EHSSSE bezala.	1 SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA ETA ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA
Sektore publikoarekiko elkarrizketa zibila (ez-propioa)	Sektore publiko osoarekiko elkarrizketa zibilaren zeharkakotasuna (1. jarduera Eusko Jaurlaritzaren kasuan).	
1-4 Estrategiaren zeharkakotasuna (EJ) eta EEZM indartzea	1. EJren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasuna eta EEZM indartzea (7.3 artikulua)	
	2. Etxebizitzen programa sozialak eta gizarteratzeko etxebizitzen sarea.	
	3. Kirolaren eta kulturaren eremuetatik, gizarteratzeko programa pilotua.	
	4. Erakundeetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa sustatzea.	
5-7 Eredu mistoa eta eredu komunitarioa	5. Eredu mistoaren hedapenaren jarraipena, sustapena eta balorazioa.	2 LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA
	6. Kontzertu sozialaren araubidea eta itunak sustatzea.	
	7. Arretaren eredu komunitarioa sustatzea EHSSko erakundeetan.	

JARDUERA

HELBURUA

8-18 Indartzea	8. Gizarte-oinarria eta parte-hartzea sustatzeko programa.	<p style="text-align: center; font-size: 2em; font-weight: bold;">3</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold;">SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ</p>
	9-14 Erakundeei laguntza integrala emateko, erakunde-motei (ATEak eta beste batzuk) egokitutako sistema bat definitu, garatu eta ebaluatzea	
	9. ATEen erakundea indartzeko sailen arteko programa.	
	10. Laguntzen deialdiak sinplifikatzea eta hobetzea, eta ATEei egokitzea.	
	11. Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta kudeaketa (kalitatea, berrikuntza,...) hobetzeko programa publikoetarako sarbidea.	
	12. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzak eta laguntzak aztertzea eta hobetzea.	
	13. EHSSren prestakuntza-beharren diagnostikoa, eta prestakuntza- eta laguntza-plana (mentoring).	
	14. EHSSko erakundeei laguntzeko egitura, existitzen diren sustapen-neurriak eskuratzea errazteko.	
	15-17 Baliabideak	
	15. Dohaintzak eta legatuak sustatzeko kanpaina.	
	16. Inbertsio-gaitasuna, likidezia eta kreditua lortzea garatzea.	
	17. Gizarte-azpiegituren sustapen-plana.	
	18. EHSSLren 16. artikuluan jasotako erakundeen betebeharren irismena argitzea, eta laguntzak diseinatzea, hala badagokio, betebehar horiek betetzeko.	
19-20 Beste eragile batzuekiko lankidetzak (euskal sektore publikokoak ez direnak)	<p>19. Europar Batasunarekiko elkarlana bultzatzea.</p> <p>20. Euskal enpresa-sektorearen eta EHSSren arteko lankidetzako programa pilotua.</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em; font-weight: bold;">4</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold;">BESTE ERAGILE BATZUEKIKO LANKIDETZA</p>

21-23 Nortasuna eta koherentzia	21. Sektorearen nortasuna indartzeko ekimena.		<p style="text-align: center; font-size: 2em; font-weight: bold;">5</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold;">SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENEA</p>
	22. Eskubideen erabilera efektiboekin lotutako gorabeherako hautemateko sistemak.		
	23. Aukera- eta tratu-berdintasuna.		
24-26 Sektorearen egituraketa	24. Sareen programa, lankidetzaz horizontala sustatzeko.		
	25. Barne-antolaketa eta sareko lana (sareen barruan) indartzea eta hobetzea.		
	26. EHSSren egituraketa sustatzea.		
27-29 Sektorearen ezagutza eta onarpena	27. Ebaluazioaren gardentasuna eta kultura sustatzea.		
	28. EHSSren eta erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatu, onartu eta sustatzea.		
	29 EHSS eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimena.	Lau urtez behingo komunikazio-plana	
		Bozeramailetzak	
		KSekiko akordioak	
Aldizkako biltzarra eta maiatzaren 12a			
30-31 I+G+b soziala	12. EGPSk ezagutzaren kudeaketa-lerroa berreskuratzea (12. jardueran sartutako ekintza).		<p style="text-align: center; font-size: 2em; font-weight: bold;">6</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold;">I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA</p>
	30. I+G+b eta gizarte-inbertsioko ekimena sustatzea.		
	31. Silver economy eta gazteen gizarte-ekintzazailtza.		
32-34 Errealitatearen analisia eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa	32. Erakundeetan eta sareetan erregistroa eta erregistro-datuaren erabilgarritasuna hobetzea.		
	33. EHSSren egoerari, sustapen-neurriari eta estrategiaren zabalkundeari buruzko ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako zikloa.		
	34. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia abian jartzea.		

Erlazio-taula: EHSSL eremuak eta EHSSSE jarduerak

EHSSL EREMUA		EHSSSE JARDUERAK
1. Gizarte-oinarria garatzea eta erakundeetan parte hartzea	→	8
2. Erakundea eta kudeaketa sendotzea	→	4, 9, 11, 13, 14, 22, 23, 24, 27, 30, 31
3. EHSSren egituraketa eta erakundeen arteko elkarlana	→	13, 24,25,26, 33
4. Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea	→	15,16, 18, 19, 27, 29, 30, 32
5. Inbertsioak eta azpiegiturak	→	2,16,17
6. Sektore publikoarekiko lankidetzak	→	1,2,3,4,5,6,7,17, 19, 30, 31
7. Enpresekiko lankidetzak	→	11, 20
8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena	→	9,10, 11, 12, 14, 17, 28, 29, 33, 34
9. Nortasuna	→	4, 7, 21,22, 23,28

5 Jarduera lehenetsiak (fitxak)

5.1 Jarduera lehenetsiak eta lehenespen-irizpideak

EHSSSE egin ondoren, eta haren helburuen irismena eta anbizioak aintzat hartuta, 34 jarduera propioetatik 12 lehenetsi eta legealdi-planean sartu dira. Hauexek dira:

Zk.: ¹⁰	JARDUERA	INPAKTUA	LEHENTASUNA
1	Eusko Jaurlaritzaren (EJ) eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasuna sustatzea eta EEZM eta haren funtzionamenduaren dinamika indartzea, Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez.	Goi-maila	Handia
5	Eredu mistoaren hedapenaren jarraipena, sustapena eta balorazioa (lankidetzaren publiko-soziala) gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.	Goi-maila	Handia
6	Kontzertu sozialaren araubidea eta itunak sustatzea , erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran sektorearen lankidetzaren formalizatzeko, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.	Goi-maila	Handia
7	Arretaren eredu komunitarioa indartzea eta sustatzea EHSSko erakundeetan .	Goi-maila	Handia
12	Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzen eta laguntzen analisia eta hobekuntza eta EHSSko erakundeentzako laguntza-lerroak deialdi bakar batean bateratzea (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza), ezagutzaren kudeaketa-lerroa berreskuratzeko.	Goi-maila	Ertaina

¹⁰ Jarduerari EHSSSEn dagokion zenbakia.

Zk.:	JARDUERA	INPAKTUA	LEHENTASUNA
17	Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurarekin eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan EHSSko erakundeen interes orokorreko beste jarduera batzuekin lotutako gizarte-azpiegiturak sustatzeko plana .	Goi-maila	Ertaina
18	EHSSLren 16. artikuluan jasotako erakundeen betebeharren irismena argitzea, eta laguntzak diseinatzea, hala badagokio, betebeharroriek betetzeko , aldizkako ebaluazio- eta kontrol-mekanismoak eta zehapen-araubide zehatza eta egokia garatu baino lehenago.	Tarteko maila	Handia
28	EHSSren eta erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatu, onartu eta sustatzea.	Goi-maila	Handia
29	EHSS eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimen bat sustatzea.	Tarteko maila	Handia
32	EHSSko erakundeetan eta sareetan erregistroa hobetzeko eta erregistro-datuaren erabilgarritasuna hobetzeko ekintzak sustatzea.	Tarteko maila	Txikia
33	EHSSren egoerari, sustapen-neurriei eta estrategiaren zabalkundeari buruzko ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako ziklo bat abian jartzea.	Goi-maila	Handia
34	Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia abian jartzea, legean aurreikusitakoa betez.	Goi-maila	Ertaina

Jarduerak adostasunez aukeratu dira Eusko Jaurlaritzaren eta EEZMn ordezkaturako EHSSko sareen artean. Jarduerak aukeratzeko irizpideak ugariak dira.

Lehenik, kontuan hartu da “jarduerak sektorean duten inpaktua”, gakotzat hartutako helburu orokorrekin lotuta daudelako, eta, beraz, aldean ustez jarduera horiek duten lehentasun-mailagatik.

Bigarrenik, zenbait jarduera (5., 6. eta 7. jarduera, adibidez) bloke koherente beraren parte direla (eredu mistoa eta eredu komunitarioa bultzatzea), eta gauza bera gertatzen da 32., 33. eta 34. jarduerekin ere (errealitatearen analisia eta datuetan oinarritutako sustapen-sistemaren kudeaketa).

Azkenik, jarduera asko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen (EHSSL) eta Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (GZEL) aurreikuspenekin lotuta daude.

Hiru mota horietako irizpideei erantzuten diete jarduera hauek, guztiak goi-mailako inpaktua eta lehentasun altua dutenak, eta helburu hauek dituztenak:

- Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasunean aurrera egitea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaz gain, EHSSren eta zenbait sailen arteko harremana areagotuz, eta EEZM indartzea, Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez (elkarrizketa etengabea, operatiboa eta noranzko bikoia, ekimen zehatzetan islatuko dena).
- Lankidetzaren publiko-sozialeko eredu mistoa bultzatzea erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko¹¹, bai eta arretaren eredu komunitarioa ere, arau-mailan eta sektorerako erreferentziazko eredu den aldetik¹², zerbitzu horiei eta erakundeek eskainitako zerbitzuen multzoari dagokionez, betiere gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.¹³

¹¹ EHSSLren II. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera, 15. artikuluan eta GZELn (V. titulua, 2. atala) aurreikusitako kontzertu sozialaren dekretua onartzea barne hartuta.

¹² Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 8. artikulua eta Gizarteko Babeseko Lantaldearen *Gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparrua*. SPC/2010/10/8 amaiera.

¹³ Ulertzen da lankidetzaren publiko-sozialeko eredu mistoak beste alternatiba batzuek baino neurri handiagoan errazten duela erantzukizun publikoko sistemak izan nahi dituzten ezaugarriak oinarri hartuta osatzea, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan (arretaren eredu komunitarioa, Europako borondatezko esparrua).

- Sektoretik bertatik eta sektore publikotik identifikatzea, aitortzea eta onartzea sektoreak eta erakundeek zerbitzuen hornidurari ematen dioten guztizko balioa eta balio erantsia, EHSSLn (12.4 artikulua) eta GZELn (V. titulua eta 64., 65., 69. eta 72. artikulua) aurreikusitakoa betez, erakundeen eta sektorearen (guztizko balioa) ekarpena indartzeko, bai eta erakundeek zerbitzuen hornidurari ematen dioten balio erantsia ere, bereziki, baina ez soilik erantzukizun publikokoa.
- Sektoreari, sustapen-ekintzari eta estrategiaren beraren zabalkundeari buruzko ezagutzan aurrera egiteko aukera ematen duten tresnak (HSSEB) eta prozedurak (ikerketako aldizkako zikloak) abian jartzea, gai horretan EHSSLren aurreikuspenak (17., 19. eta 25. artikulua) betez eta beste jarduera batzuk garatzeko eta sektorearen ezagutzarekin, aitortzarekin, nortasunarekin eta abarrekin lotutako beste helburu batzuk lortzeko aukera sortuz.

Hautatutako beste jarduera batzuek, garrantzitsuak izanik, inpaktu edo lehentasun txikiagoa dute, eta, kasu batean (32. jarduera), ez eraginaren inpaktua ez eta lehentasuna ere ez dira altuak, baina araudiak ezarritako betebeharrak baten ondorioz hautatu da behar bati erantzuten diolako, eta epe laburrean ekin behar zaio¹⁴. 18. jardueraren kasuan ere ia berehala ekiteko behar hori planteatzen da.

5.2 Fitxei buruzko alderdi metodologikoak

- Jardueretan adierazten diren datuak (“Justifikazioa” ataleko datuak, zehazki) Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburukoak dira. Ed. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. 2015eko abendua. [Eskuragarri online](#).

¹⁴ Gainera, ez da beste jarduera batzuk bezain konplexua eta Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSko sareen arteko lankidetzaren adibidetzat har daiteke, interes orokorreko egoera eta behar oso zehatzei erantzuteko.

- Epeei dagokienez, esate baterako, “2019...” adierazten bada, etenpuntuekin, esan nahi du ekintzak gutxienez 2020ra arte jarraituko duela. Jarduera batek 2020tik harago jarraitu behar badu, 2020an jardueraren bitarteko ebaluazioa egitea aurreikusten da. Dena dela, jarduera guztiek amaierako ebaluazioa izan behar dute, jarraipen- eta emaitza-adierazleak oinarri hartuta, eta jardueraren ekintzak amaitu ondoren egingo da.
- Adierazi dugun moduan, estrategiak tresna bizia izan behar du, jarduera eta ekintza berriak sartu ahal izateko. Gainera, ekintza guztiak (jarduerak baino neurri txikiagoan) eguneratu edo ñabartu daitezke estrategia abian jarri ondoren; bereziki, jardueran aurreikusita badago aurretiko analisi edo diagnostiko bat egitea. Ekintzak eguneratu edo ñabartu beharreko kasuetan, beharrezkoa izan daiteke jarraipen-adierazleak ere aldatzea.
- Emaitzen adierazleei dagokienez, kontuan hartu behar da zaila izan daitekeela, zenbait kasutan, beharrezko datuak lortzea (adierazlearen egingarritasuna) eta jarduerak hobeto zehaztu daitezkeela (bereziki, diagnostikoko edo diseinuko hasierako fase bat aurreikusten den kasu ugaritan) edo aldatu egin daitezkeela, ekintzak baino neurri txikiagoan bada ere. Horregatik, garrantzitsua da adieraztea emaitzen adierazleak gida orientagarritzat hartu behar direla (jardueraren zentzua eta orientazioa ulertzen laguntzen duela) eta gerta daitekeela emaitzen ebaluazioko txostenak aintzat ez hartzea hemen planteatutako batzuk, eta beste batzuk sartzea.
- Estrategiak orientabide orokorrak ditu bere baitan (ATEen diskriminazio positiboa, sozial-zeharkako edo zibiko eremukoak batik bat), bai eta ATEak sustatzeko edo haiei laguntza emateko berariazko jarduerak ere. Ikuspegi horretatik, strategiaren jarduerak garatu, ebaluatu eta eguneratzean, diseinuan bezala, komenigarria da balioestea ATEen beharrei egokitutako ekintzak, irizpideak... sar daitezkeen.

- EHSSko sareek eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak (HSSEB) esperientziak (jardunbide berriak eta egokiak), informazioa eta prestakuntza (jardunaldiak, tailerrak, mintegiak...) trukatzeko ekintzak sustatu ditzakete, birtualki eta aurrez aurre, estrategiaren helburuekin eta jarduerekin lerrokatutako edukien inguruan, bere ekimenez edo hirugarrenek eskatuta.
- Ekintzetan letra etzanez idatzitako testua haien alderdi metodologikoei buruzkoa da.

5.3 12 jarduera lehenetsien xehetasunak (fitxak)

Jarduera bakoitzaren deskribapen xehatua egiteko erabiltzen den txantiloia Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiarekin estrategiaren diseinua kontrastatzean adostutakoa da.

Jarduera bakoitzaren fitxa aurkeztu aurretik, txantiloia eta haren atal bakoitzaren edukia aurkeztuko ditugu.

→ Jarduera-zk.		Zer helburutan kokatzen den	
		Inpaktua	Lehentasuna
		Jardueraren enuntziatua.	Goi-mailakoa, ertaina edo baxua, sektorearen hobekuntzan jarduerak izango duen eragina nolakoa izango den.
Eremua		Arduradunak	
Kontuan hartutako 9 eremuetatik jarduerarekin lotuta daudenak		Jarduera bultzatzeko arduradunak eta parte hartzen duten hirugarren pertsonak.	
Deskribapena	Jardunaren deskribapen laburra.		
Justifikazioa	Jarduerarekin lotura duten diagnostikoaren edo testuinguruaren (arauemailea, soziala...) alderdiak.		
Emaitzen adierazleak	Jarduerarekin lotutako helburuak lortu diren edo ez ebaluatzeko aukera ematen dute. Lurralde historikoka bereiziko dira, dagokionean.		
Ekintzak		Epeak	Jarraipen-adierazleak
Jarduera xehatuta lortzen diren eta ohiz sekuentzia bat osatzen duten ekintzen deskribapena.		Deskribatutako ekintza egikaritzeko aurreikusitako epea.	Ekintza egikaritu den eta adierazlean definitutako estandarren arabera egin den edo ez ebaluatzeko aukera ematen dute.

¹⁵ Lehentasun-mailak nolabaiteko lotura da epeekin eta jarduera batik epe laburrean edo ez hain laburrean ekiteko egingarritasunarekin.

→ 1. JARDUERA

1. helburua: SUSTAPEN-ESTRATEGIAK GARATZEA ETA ELKARRIZKETA ZIBILA ETA ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA/ESTRATEGIAREN ZEHARKAKOTASUNA (EJ) ETA EEZM INDARTZEA

Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasuna **sustatzea** eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia **eta haren funtzionamenduaren dinamika indartzea, Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez.**

Inpaktua

Lehentasuna

Goi-maila/Tarteko
maila/Baxua

Handia/Ertaina/Txikia

Eremua

Arduradunak

6. Sektore publikoarekiko lankidetzaren.

Eusko Jaurlaritza eta haren sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila buru dela, Lehendakaritzaren (Koordinazio Zuzendaritza) laguntzarekin.

Deskribapena

Eusko Jaurlaritzak denetariko neurriak bultzatuko ditu, sektorearekiko lankidetzaren zeharkakotasunean aurrera egiteko, eta EEZM eta haren funtzionamenduaren dinamika indartuko ditu, Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Justifikazioa

Asmoa da EHSSSE zeharkako tresna bihurtzea, gero eta gehiago, eta Gobernuaren denetariko sailen artean koordinatutako lan bati erantzutea, lanaren diseinuan, haiek guztiek EHSSri eta lankidetzaren publiko-sozialari buruzko jarrera partekatuta batetik eta ikuspegi batetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila buru dela, eta Lehendakaritzaren (Koordinazio Zuzendaritza) laguntzarekin.

Norabide horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa dirudi: Sailen sustapen-neurriak eta jarduerak identifikatzea sektorearekin lankidetzan; eta EHSSko erakundeek eta sareek eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko elkarguneak erraztea, maila politikoan eta maila teknikoan, elkar ezagutzeko, lankidetzarako aukerak identifikatzeko, erantzukizun publikoko politiken eta zerbitzuen orientazioan parte hartzeko, etab.

Gainera, EEZMren funtzionamenduaren dinamika indartu behar da, haren ekintzaren zeharkakotasunean eta orientazioan aurrera eginez lankidetzan sustatu beharreko proiektu edo ekimen zehatzak lortzeko.

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Lehendakaritzaren (Koordinazio Zuzendaritza) inplikazioa estrategiaren diseinuan, sustapenean, zeharkako zabalkundeetan eta ebaluazioan.
- EHSSSErekin lotutako jarduerak edo ekintzak aurreikusi eta garatu dituzten Eusko Jaurlaritzako sailak.
- Sailek EHSSko erakunde eta sareentzat laguntza-programak zabaltzea (ikusitako beste jarduerak batzuk): sail bakoitzaren laguntzak eskuratzen dituzten erakundeek eta sareek kopurua eta eta zer motatakoak diren.
- Laguntzen edo beste tresna batzuen bidez (lankidetzaren), erakundeek ekimenei laguntzen dieten Eusko Jaurlaritzako sailen kopurua, eta baterako proiektu edo ekimeneetan EHSSko erakundeekin edo sareekin elkarlanean jarduten duten sailen kopurua.
- EEZMtik benetan garatutako proiektu edo ekimen zehatzak kopurua: proiektuen edo ekimeneen deskribapena, eta haietako bakoitzean inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailena, bere gain hartutako ekintzak adieraziz.

Emaitzen adierazleak

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>1 Lehendakariaren parte-hartzea estrategiaren emaitzak ebaluatzeko EEZMren bilkura monografikoan, haren parte-hartzea beste une batzuetan aurreikus daitekeela baztertu gabe.</p>	2020	<ul style="list-style-type: none"> - Lehendakariaren parte-hartzearekin egindako bilkura.
<p>2a Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Lehendakariaren (Koordinazio Zuzendaritza) laguntzarekin, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek EEZMn parte hartzea bultzatzea, pixkanaka.</p> <p>2b Denetariko sailek parte hartzea EHSSERen hedapenean, jarraipenean eta ebaluazioan: estrategia zabaltzeko, EEZMren baitan eratuko den lantaldearen bileretan, betiere bilera horiek haien ardurapekoak diren jarduerekin edo parte hartzen duten jarduerekin lotuta badaude; strategiaren jarraipena, ebaluazioa edo eguneratzea egiteko bilkuren saioetan; strategiaren jarraipenean, ebaluazioan eta eguneratzean.</p>	2018..	<ul style="list-style-type: none"> - EEZMn modu egonkorrean, puntualki parte hartzen duten sailen kopurua. - EEZMren lantaldean estrategia hedatzen parte hartzen duten sailen kopurua eta parte hartzen duten lantaldeen bileren kopurua. - Strategiaren jarraipenean, ebaluazioan eta eguneratzean parte hartzen duten sailen kopurua. - EHSSko sareekin batera, strategiaren jarraipenaren urteko txostenetan eta emaitzen ebaluazioaren txostenean parte hartzen duten sailen kopurua.
<p>3a Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak egiten ari diren edo abian dauden planak, laguntzen deialdiak eta beste ekimen batzuk identifikatzea, EHSSren sustapen-neurriak sartuta dituztenak, sartzeari aurreikusten dutenak edo sar ditzaketenak eta/edo harekin lankidetzan aritzeko ekintzak eta informazio horren urteko eguneratzea.</p> <p>3b Sail bakoitzak neurri eta ekintza horien egikaritzaren jarraipena egitea, berriz aztertuz, eta, hala badagokio, hobetuz edo indartuz, EHSSko sareekin elkarrizketan.</p> <p>3c EHSSren sustapen-neurriei buruzko txostenean sustapen-neurriak eta lankidetzako ekintzak sartzeari, egikaritu direnak, EHSSLren 19. artikuluan aurreikusitakoa betez.</p>	<p>Identifikazioa (2018) eta urteko eguneratzea, 2019tik aurrera</p> <p>Urteko jarraipena, 2019tik aurrera</p> <p>Urtekoa, 2018tik aurrera</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sail bakoitzak txantilo bateratu batean sortutako urteko txostena. - Egindako jarraipena eta sail bakoitzak txantilo bateratu batean sortutako txostena. - Bultzatutako sustapen-neurriak eta lankidetzako ekintzak, EHSSren sustapen-neurriei buruzko urteko txostenean sartuta daudenak.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>4 Eusko Jaurlaritzaren sailen eta EHSSko erakundeen eta/edo sareen arteko topaketak sustatzea, elkar ezagutzeko, informazioa trukatzeko eta lankidetzako edo elkarlaneko aukerak identifikatzeko.</p> <p>Topaketa horiek eta hurrengo ekintzan adierazitakoak eremu edo sistema jakin batekin lotuta (gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna, hezkuntza...) planteatu daitezke, eremuen edo sistemen elkarrekintzako espazioekin lotuta (soziosanitarioa edo sozioedukatioa, adibidez) edo bi aldeen arteko lankidetzak-esparruak, funtzioak eta erantzukizunak definitzeko, edo parte hartzeko edo koordinatzeko prozedurak sistematizatzeko, edo izaera orokorreko gaiekin lotuta, sail bat baino gehiago inplikaturik; kasu horretan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatuko ditu, Lehendakariaren laguntzarekin.</p>	<p>2018, bizitasun handiagoz, eta hurrengo urteak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako topaketen kopurua: a) sail bakar baten parte-hartzea dutenak edo sail artekoak; b) eremu edo sistema jakin batekin lotuta, eremuen edo sistemen elkarrekintzako espazioekin lotuta, edo izaera orokorreko gaiekin lotuta. - Topaketen parte-hartzaileak (arduradun politikoak, teknikoak... diren adierazita), edukia eta emaitza: trukaturako informazioa, eta identifikaturako lankidetzako edo elkarlaneko aukerak.
<p>5 Eusko Jaurlaritzako teknikarien eta EHSSko sareen arteko topaketa, prestakuntza, hausnarketa edo eztabaidarako espazioak sustatzea, alderdi hauei buruz:</p> <p>a) gai orokorrak (EHSSri eta haren ekarpenari buruz, sareei eta sektorearen egituraketari buruz, EHSSLri buruz, lankidetzak eta elkarlan publiko-sozialari eta hori formalizatzeko tresnei buruz...);</p> <p>b) estrategiaren jarduerekin lotutako berariazko gaiak (asoziazionismo txikia eta ertaina, sektorera bideratutako laguntza-deialdiak, kontzertu soziala...). Prestakuntza, hausnarketa eta eztabaidarako espazioak sail bakoitzak edo Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatuko ditu, Lehendakariaren laguntzarekin (sail arteko espazioen kasuan).</p>	<p>2018...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sustatutako espazioen kopurua: a) sail bakar baten parte-hartzea dutenak edo sail artekoak; b) gai orokorreki edo strategiaren jarduerekin lotutako berariazko gai buruzkoak.
<p>6 EEZMren funtzionamenduaren dinamika eguneratzea eta indartzea, kide anitzeko organo gisa, Legearen 7.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, gobernuaren ekintzari eta erakundeen eta sareen ekintzari dagokionez elkarriketa EEZMren baitan egin dadin, eta aldeek elkarlanean bultzatu beharreko proiektu edo ekimen zehatzak lortzeko, eta haien jarraipena egin eta ebaluatzeko.</p>	<p>Proiektuen edo ekimenen identifikazioa (2018...).</p> <p>Haien garapena eta jarraipena (2018...).</p> <p>Ebaluazioa, haietako bakoitza amaitzean eta 2010ean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - EEZMk identifikaturako eta abian jarritako proiektu edo ekimen zehatzen kopurua eta haietako bakoitzaren deskribapena. - Haietako bakoitzaren emaitzen ebaluazioa eta ebaluazio orokorra 2020an.

Eredu mistoaren hedapenaren jarraipena, sustapena eta balorazioa (lankidetzaren publiko-soziala) gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Baxua
Eremua		Arduradunak	
6. Sektore publiko-errekiko lankidetzaren.		Eusko Jaurlaritzaren (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila), beste sail batzuekin eta euskal administrazio publikoekin, eta EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzaren.	
Deskribapena	<p>Eusko Jaurlaritzak, nahi duten beste euskal administrazio publiko batzuekin lankidetzaren, eta EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzaren publiko-sozialaren (eredu mistoa) hedapenaren jarraipena, balorazioa eta sustapena egingo dute sistemetan eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko sistemen arteko elkarrekintzako espazioetan, EHSSko erakundeen parte-hartzea kontuan hartuta, kantitateari eta kalitateari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) erantzukizun publikoko sistemen eta sistemen arteko elkarrekintzako espazioen kudeaketan; b) zerbitzuen horniduran (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza); c) erreferentearen irudiarekin eta kasua koordinatzearekin lotutako funtzioak egiten (administrazio arduradunak ordezkatutako parte-hartzea, dena dela); d) gizarte-laguntza eta informazio-jardueretan, orientazioan eta arreta-sistemetan sartzeko zerbitzuen deribazioan. 		
Justifikazioa	<p>Jarduera bat dator EHSSLren III. Kapituluaren aurreikusitakoarekin, eta, bereziki, EHSSko erakundeen parte-hartzearen zenbait esfera ezartzen dituzten 10. artikulutik 13. artikulura artean.</p> <p>Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan eredu mistoa finkatzeak eta hedatzeak, sistema eta espazio bakoitzaren ñabardurak kontuan hartuta, esku-hartzearen iraunkortasun-faktore bat izatetik harago, elkarriketa zibilaren eta eredu komunitarioari egokitzeko bermea osatzen du, eta arreta hurbila, integrala, pertsonalizatua, parte-hartzailea... errazten du.</p> <p>Eredu mistoaren hedapena bultzatzeari dagokionez, sistemen eta espazioen arteko ikuspegiak eta ikuspuntuak partekatatu behar dira, pixkanaka, bai eta euskal administrazio publikoen eta Eusko Jaurlaritzaren sailen artekoak ere, hedapenean eta garapenean aurrera eginez, maila praktikoan, teorikoan eta arau-mailan.</p> <p>Dena den, kontuan hartu behar da estrategiaren ardatza, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen adierazitako terminoetan, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan kokatzen dela; bereziki, eredu mistoari dagokionez.</p>		

Emitzen adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> - Erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan aritzen diren eta jarduera deskribatzean adierazitako alderdietako bakoitzean parte hartzen duten EHSSko erakundeen kopurua: a, b, c eta d. - Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, sistemetan eta sistemen arteko elkarrekintzako espazioetan EHSSko erakundeen parte-hartzearen kuota (datua eskuragarria den heinean): kudeaketa publiko zuzenaren, irabazizko ekimen pribatuaren bidezko kudeaketaren (zeharkako kudeaketa publikoa) eta ekimen sozialaren (ekimen sozialarekin lankidetzan egindako kudeaketa) kudeaketaren baturarekiko adierazten duen ehunekoa. 		
Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak	
1 Lantalde bat eratzea, beste euskal administrazio publiko batzuekin lankidetzan eta EHSSko sareen parte-hartzearekin, jardueraren deskribapenean adierazitako lau alderdietan (a, b, c eta d) erakundeen parte-hartzea bultzatzeko planteamendu bat egingo duena.	2018	<ul style="list-style-type: none"> - Lantaldea eratuta. - Planteamendua eginda (dokumentua eginda). 	
2a Esperientziak eta jardunbide egokiak identifikatzea, lau alderdietako bakoitzarekin lotuta: a, b, c eta d.	2018	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientziak eta jardunbide egokiak identifikatuta. 	
2b Oinarrizko informazioa biltzea eta analizatzea, sektoreko erakundeei beraiei eta zerbitzuen arduradun diren administrazio publikoei zuzendutako galdetegi sinpleen bidez; galdetegiak gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan jardueraren deskribapenean adierazitako lau alderdietan (a, b, c eta d) erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan aritzen diren EHSSko erakundeen parte-hartzeari buruzkoa da.	2019...	<ul style="list-style-type: none"> - Galdetegien administrazioa eta informazioaren trataera sistemen, sistemen elkarrekintzako espazioen edo eremuen (soziosanitarioa, soziolaborala...) eta gorabeheren (mendekotasuna/autonomia, bazterkeria/inklusioa, babesik eza, desgaitasuna) arabera. - Bildutako datuekin txosten bat eta hobekuntza-proposamenak egitea. 	
3a EHSSko erakundeetako profesionalen parte hartzeko eredia argitzea, beste euskal administrazio batzuekin lankidetzan, betiere ardura duen administrazioak ordezkaturak: erreferentearen irudiarekin eta kasua koordinatzearekin lotutako funtzioak egiten; gizarte-laguntzan; eta informazio-jardueretan, orientazioan eta arreta sistemetan sartzeko zerbitzuen deribazioan.	2019 (eredua argitzea)	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartzeko eredia eginda. 	
3b Eredua bultzatzeko ekintzak identifikatzea eta abian jartzea: ereduaren eta identifikatutako jardunbide egokien eta prestakuntzaren hedapena, posible diren beste batzuen artean.	2020... (bultzatzeko ekintzak)	<ul style="list-style-type: none"> - Egikaritutako bultzatzeko ekintza-kopurua eta zer motatako ekintzak diren (ereduaren hedapena eta jardunbide egokiena, prestakuntza...). 	

→ 6. JARDUERA

2. helburua: LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA / EREDU MISTOA ETA EREDU KOMUNITARIOA

Kontzertu sozialaren araubidea eta itunak sustatzea, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran sektorearen lankidetzaren formalizatzeko, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Baxua
Eremua		Arduradunak	
6. Sektore publikoarekiko lankidetzaren.		Eusko Jaurlaritzak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila), beste sail batzuekin lankidetzan eta gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta.	
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta, kontzertu <i>sozialaren</i> araubidea bultzatuko dute, administrazio publikoen kontratazio-araudian araututako kontzertuaren kontratuaren modalitatea eta gainerako irudiak (hitzarmenak eta lankidetzarako esparru-akordioak) bereiziz, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean aurreikusitakoa betez, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran sektorearen elkarlana formalizatzeko.		
Justifikazioa	Jarduerak bi arauetan aurreikusitakoari erantzuten dio: zehazki, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen bosgarren tituluko lehen kapituluan, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen hirugarren kapituluan, 12. eta 12. artikuluetan.		
Justifikazioa	Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan lankidetzaren publiko-soziala formalizatzeko tresnak izatea beharrezkoa da: a) elkarriketa zibilaren printzipioarekin eta eredu mistoarekin koherenteak direnak; b) eremu horretan pertsonen erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran EHSSko erakundearen esperientzia eta balio erantsia aitortzeko gai direnak, interes orokorreko gizarte-zerbitzuek izan behar dituzten ezaugarriak eta arretarako eredu komunitarioa aintzat hartuta.		
Justifikazioa	Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean aurreikusitako kontzertu sozialaren araubidea gizarte-arloko esku-hartzearen esparru osora zabaltzeak araubide horri buruzko hausnarketa pixkanaka gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan sartutako sistemetara eta espazioetara (soziosanitarioa, soziolaborala...) zabaltzea komenigarri bihurtzen du, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen definizioa kontuan hartuta.		
Emaitzen adierazleak	Ahal den neurrian, datua hauek lortu behar dira:		
Emaitzen adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> - EHSSko erakundeekin formalizatutako kontzertu sozialen eta hitzarmenen kopurua (urteka). Estrategiaren iraunaldian zehar bi irudien urteko handitze bat espero da (kontzertu sozialaren kasuan, hura arautzen duen dekretua onartu ondoren).. - Izaera bereziko jarduera duten erakundeekin egindako hitzarmenen kopurua (EHSSri buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 12. artikuluko 3. atalean definitutako terminoetan). - Kontzertu sozialen eta hitzarmenen ehunekoa, formalizatutako kontzertu, hitzarmen eta kontratu guztiekiko: a) EHSSrekin; b) irabazizko ekimen pribatuarekin. 		

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>1 Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak beharrezkoak diren urratsak egitea, kontzertu sozialaren dekretu arautzailea onartzeko, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betez, EEZMren esparruan kontzertu sozialari buruzko lantalde bat eratuz, hasteko.</p>	<p>2018</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lantaldearen bileren kopurua eta emaitzak (egindako txostena edo gomendioak). - Dekretua EHAAan argitaratzea, hala badagokio.
<p>2 Kontzertu sozialaren eta lankidetzako hitzarmen eta esparru-akordioen erabileraren jarraipena; besteak beste, ea hitzarmenen erabilerek hauek bermatzen dituzten:</p> <p>a) izaera bereziko jarduera duten erakundeak;</p> <p>b) justifikatutzat jo daitezkeen beste balizko batzuk; esate baterako, iraupen luzeko proiektuak, edo premiazko izaera edo izaera berritzailea dutenak, edo behar egonkor eta garrantzitsuei erantzuten dietenak baina erantzukizun publikoko katalogoetan sartuta ez daudenak hedatzen dituztenak, edo izaera esperimentalekoak.</p>	<p>Estrategiaren iraunaldi osoan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, ekimen pribatuarekin, eta, bereziki, ekimen sozialarekin formalizatutako kontratu, hitzarmen, kontzertu eta lankidetzarako esparru-akordioen kopuruari buruzko informazio eguneratua lortzeko aukera ematen duen sistema bat abian jartzea.
<p>3 Kontzertu sozial, hitzarmen eta kontratuetan sartzeko betekizunak eta diskriminazio positiboko neurriak hartu izanaren jarraipena eta balorazioa egitea, bai eta diskriminazio positiboko neurriei beste alderdi batzuekiko emandako balio erlatiboarena ere.</p>	<p>Estrategiaren iraunaldi osoan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berriz aztertutako kontzertu, hitzarmen eta kontratuen kopurua. - Diskriminazio positiboko neurriak dituzten kontzertu, hitzarmen eta kontratuen kopurua. - Sartzeko baldintza-motak eta hartutako diskriminazio positiboko neurri-motak identifikatzea, araudian aurreikusitakoarekin bat datozen eta haien balio erlatiboa aztertzea, azterketan euskal administrazio publikoetako hiru mailak bereiziz.

→ 7. JARDUERA

2. helburua: LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA / EREDU MISTOA ETA EREDU KOMUNITARIOA

Arretaren eredu komunitarioa indartzea eta sustatzea EHSSko erakundeetan.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Baxua
Eremua		Arduradunak	
9. Nortasuna. 6. Sektorre publikoarekiko lankidetzaz.	EHSSko sareak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin, Osasun Sailaren lankidetzarekin eta zerbitzuen ardura duten euskal administrazioen parte-hartzearekin, hala nahi badute.		
Deskribapena	EHSSko sareek, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta nahi duten euskal administrazio publikoek EHSSko erakundeetan arretaren eredu komunitarioa indartzeko eta bultzatzeko ekimen bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatuko dute. Izaera estrategikoko alderdi bat indartzeko ahalegina egingo da, gizarte-arloko esku-hartzearen esparru osorako eta gizarterako, pertsonentzako eta erabiltzaileak diren familietarako, EHSSrako eta sektore publikorako interesgarria dena.		
Justifikazioa	<p>Pertsonen arretaren kalitatea eta arretaren zerbitzuen eta sistemen iraunkortasuna lortzeko, arreta komunitarioa eta prebentziozko ikuspegia indartu behar dira. Eta, bereziki, erakundeek (eta sistema publikoek) pertsoneri arreta beren etxean eta/edo beren ohiko bizilekua izan denean emandako kasuen ehunekoa handitzea.</p> <p>Egoitza-arretaren eredutik arretaren eredu komunitario batera igarotzea Europa 2014-2020 strategiaren lehentasun bat da. Eredu komunitarioak eta <i>Gizarte-zerbitzuetako kalitatearen Europako borondatezko esparruak</i>¹⁶, aurrekoarekin estu lotuta dagoenak, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan pertsonentzako erantzukizun publikoko zerbitzuen arretaren eta kudeaketaren oinarria izan daitezten nahi diren ezaugarriak adierazten ditu oro har. Hain zuzen, eta biek in koherente izanik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakundeek ematen duten arretak hainbat irizpideri erantzuten diote: pertsonalizazioa (pertsona ardatz duen planifikazioa...), integralitatea (zerbitzu integralak, diziplinartekotasuna, erakundearen barruan eta kanpoan sarean lan egitea, pertsonarekin eta haren testuinguruarekin lan egitea...), jarraitutasuna (denboran zehar eta bizitzan zehar, beharrezkoa denean), gertutasuna (pertsoneri arreta beren etxean ematea edo beren bizilekua izan denean, zentro motek inguruarekin duten konexioa...), irisgarritasuna, parte-hartzea (erabiltzaileen ahalduntzea eta parte-hartzea...) erabiltzaileen eskubideak errespetatzea eta haietan eta haien laguntza-sarean oinarritutako emaitzetara bideratzea, etab. • Eta zerbitzuen kudeaketa parte-hartzaileen (lankidetzaz publiko-soziala eta beste eragile batzuekiko lankidetzaz), gobernu onaren 		

¹⁶ The Social Protection Committee. *A voluntary European Quality Framework for Social Services*. SPC/2010/10/8 amaiera, 3. orrialdea. Dokumentu honetan, gizarte-zerbitzuetat Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuak (IOGZ) hartzen dira, beste prestazio eta zerbitzu batzuen artean gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko pertsoneri zuzendutako zerbitzuz guztiak barne hartzen dituztenak.

Emaitzen adierazleak	<p>(gardentasuna, efikazia, efizientzia...), pertsonak zaintzearen, laneko baldintzak duinak sustatzearen , eta azpiegiturak arauen eta kalitatearen estandarretara egokitzearen printzipioetan.</p> <p>Hala ere, badira desberdintasunak eremuen eta erakundeen artean, daitekeena da batzuek besteetatik ikastea, eta oso garrantzitsua da guztiek alderdi horiek azpimarratzen jarraitzea, eredu komunitarioan sakontzea, eta, beren erantzukizunaren eremuan, <i>Gizarte-zerbitzuetako kalitatearen Europako borondatezko esparrua</i> inplementatzea.</p>		
	<ul style="list-style-type: none"> - Ekimenean edo programan parte hartuz arretan eta kudeaketan hobekuntzak sartu dituzten EHSSko erakunde-kopurua eta zer erakunde-mota diren: hobekuntza-eremuak eta sartutako hobekuntza zehatzak. - Egindako hobekuntzei buruz erabiltzaileek, zerbitzuen horniduraren arduraduna den administrazio publikoak, erakundeko profesionalek, zerbitzua ezarrita dagoen komunitateko beste eragile batzuek eta abarrek egindako balorazioa. - EHSSko erakundeek artatutako pertsonen kopurua eta proportzioa (ekimena abian jartzeko urtean, haren garapenean zehar eta amaieran): a) egoitza-zentroetan, beste alojamendu alternatibo batzuetan, eta etxean; b) ohiko bizilekua izan denean edo beste leku batzuetan; c) lehen mailako arretako zerbitzuetan eta bigarren mailako arretako zerbitzuetan. 		
	Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
	<p>1 EHSSko erakundeek ekimena edo programa diseinatzea, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta zerbitzuen arduradunak diren administrazio publikoekin lankidetzan, Europar Batasunarekin eta arreta komunitarioagoa lortzeko bilakaeran antzeko ekimenak bultzatu dituzten beste herrialde eta/edo eskualde batzuekin.</p> <p><i>Ekimenak barne hartuko ditu, posible diren beste batzuen artean, erantzukizun publikoko prestazioei eta zerbitzuei dagozkien ekintza hauek (gizarte-zerbitzuei, soziosanitarioei eta soziolaboralei jarriko zaie arreta, bereziki).</i></p>	2018-2019	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzarekin batera diseinatutako ekimena, zerbitzuen arduradunak diren euskal administrazio publikoekin, Europar Batasunarekin eta antzeko ekimenak bultzatu dituzten beste herrialde eta/edo eskualde batzuekin lankidetzan. - Ekimena abian jarrita.
<p>2 EHSSko erakundeen altxorraren zati diren arretaren eta kudeaketaren jardunbide egokiak definitzea, haien balioekin, zerbitzuen horniduraren balio erantsiarekin, eta eredu komunitarioaren eta <i>Gizarte-zerbitzuetako kalitatearen Europako borondatezko esparruaren</i> ezaugarriekin lotuta, sektoreak partekatutako erreferentzia-esparrua den aldetik (nazioz gaindiko alderaketak egiteko aukera ere baloratu behar da).</p>	2018-2019	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunbide egokiak definitzea eta haiekin lotutako esperientziak identifikatzea. 	

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>3 Erakundeek parte hartzen duten zerbitzuen eta prestazioen hornidura arretaren eredu komunitarioari eta <i>Gizarte-zerbitzuetako kalitatearen Europako borondatezko esparruari</i> egokitzen zaion aztertzea, arretaren eta kudeaketaren ezaugarriak hobetzeko ildoak identifikatuz.</p> <p><i>Interesa duen sare eta/edo erakunde bakoitzak egingo duen azterketa horretan, aurreko ekintzan adierazitako jardunbide egokien multzoa sartuko da kontrastatzeko elementu gisa. Gainera, zerbitzuen arduradunak diren administrazio publikoekin ere kontrasteak egingo dira. Erakunde bakoitzak emandako informazioa sistema, espazio eta eremuen arabera sistematizatuko da.</i></p>	<p>2019 (azterketa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Beren zerbitzuak aztertu dituzten erakundeen kopurua: sistemetakoak (gizarte-zerbitzuak), espazioetakoak (soziosanitarioa, soziorabala...), eremuetakoak (adineko pertsonak, desgaitasunak dituzten pertsonak...), etab.
<p>4 Erakundeen eta/edo sareen proiektuak garatzea, eta beste batzuekin lankidetzan, proiektu berritzaileak edo hobekuntza-proiektuak garatzea: arretaren zerbitzu- edo antolaketa-mailako alderdi bat hobetzeko planak, arreta komunitarioagoa lortzeko trantsizio-prozesu globalak, lehen mailako arretarako zerbitzu berriak abian jartzea eta existitzen diren zerbitzu komunitarioak hobetzea, arreta komunitarioko sareak garatzea, bizitza independentearen eta komunitateko bizitzaren eskubideari buruz sentsibilizatzea, mota guztietako zentroen eta ingurunearen arteko konexioa indartzea (egoitza-zentroena ere bai), etab.</p> <p><i>Proiektuek aurretiko bideragarritasun-azterketa bat behar dute, eta interesgarriak izan behar dute sektore publikorako, eta harekin lankidetzan jardun proiektua diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen.</i></p>	<p>2020...</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak abian jarri dituzten erakundeen eta/edo sareen kopurua: berritzaileak edo hobekuntzakoak, propioak edo beste batzuekin lankidetzan egindakoak, kanpoko laguntza eta finantzaketa dutenak (euskal administrazio publikoak, EB). - Sistemek, espazioek eta eremuek abian jarritako proiektuen deskribapena.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>5 Esperientzien sistematizazioa eta trukea (jardunbide egokiak), EAEn, estatuan eta nazioz gaindiko mailan (jardunbide egokien trukerako mintegiak nazioz gaindiko mailan) sustatu nahi diren arretaren ezaugarriei edo dimentsioei dagokienez (identifikatutako hobekuntza-ildoak kontuan hartuta).</p> <p><i>EAEn sistematizatu beharreko esperientzia batzuk ekimen horren esparruan erakundeek abian jartzen dituztenetik aterako dira.</i></p>	2020...	<ul style="list-style-type: none"> - Sistematizatutako jardunbide egokien kopurua, arretaren zenbait ezaugarri edo dimentsiori dagokionez, eta sistemei eta sistemen edo eremuen arteko elkarrekintzako espazioei dagokienez. - Egingako hedapen- edo truke-ekintzen deskribapena.
<p>6 Arretaren eredu komunitarioarekin, Gizarte-zerbitzuen kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin eta bultzatu nahi diren arretaren ezaugarri edo dimentsioekin lotutako prestakuntza-eskaintza bultzatzea (Eusko Jaurlaritza, Hobetuz-Lanbide, baliabide propioak...).</p> <p><i>Prestakuntza-ekintzak definitzeko, azterketan lehenetsitako hobekuntza-ildoak eta diseinatutako proiektuak hartuko dira kontuan.</i></p>	2019...	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza-ekintzen kopurua eta parte hartu duten pertsonen kopurua (profesionalak eta boluntarioak). - Emandako prestakuntza-orduak.
<p>7 Europar Batasunaren laguntza eta finantzaketa bilatzea, ekimena osorik garatzeko eta ebaluatzeko, bai eta behar adinako maila eta/edo nazioz gaindiko interesa duten ekintza eta proiektu zehatzak ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Bruselako Ordezkaritzaren laguntza izanik, horretarako.</p>	2019... (ekimena) 2020... (proiektuak)	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkeztutako eta onartutako EHSSko erakundeen proiektu-motak eta -kopurua, edo erakunde horiek partaide dituztenena.
<p>8 Ekimenaren edo programaren tarteko ebaluazioa eta amaierakoa, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta etengabe kontrastatzea Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taularekin eta Kataluniako Generalitatearekin, antzeko ekimen bat hartuta.</p> <p><i>Ebaluazioei esker, besteak beste, eragin beharreko elementuak (arau-aldaketak, finantzaketa-esparruak...) identifikatu ahal izango dira, aurreikusitako norabidean aurrera egiteko.</i></p>	2020 (tarteko lehen ebaluazioa) 2018... (kontrastea)	<ul style="list-style-type: none"> - Ekimenaren tarteko ebaluazioaren txostena (proiektuak bakoitzean aurreikusitako unean ebaluatuko dira, haren garapenean aurrera egin ahala). - Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taularekin eta Generalitatearekin egindako kontrastatzeko bilerak.

→ 12. JARDUERA

3. helburua: SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzen eta laguntzen analisia eta hobekuntza eta EHSSko erakundeentzako laguntza-lerroak deialdi bakar batean bateratzea (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza), ezagutzaren kudeaketa-lerroa berreskuratzeko.

Inpaktua

Lehentasuna

Goi-maila/Tarteko
maila/Baxua

Handia/**Ertaina**/Txikia

Eremua

Arduradunak

8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, EHSSko erakundeen eta sareen parte-hartzearekin.

Deskribapena

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (Gizarte Zerbitzuak) EHSSko erakundeei laguntzeko deialdi bakar bat bultzatuko du, gutxienez hiru ildo aurreikusiko dituena: a) pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gizarte-arloan esku-hartzeko jarduerak; b) gizarte-arloan esku-hartzeko boluntarioen ekintza sendotzeko eta elkarteetan parte hartzea bultzatzeko jarduerak; c) gizarte-arloko esku-hartzerako ezagutzaren kudeaketarako jarduerak. Bestetik, Sailak bere osotasunean erakundeei eta sareei laguntzeko sistemaren (diru-laguntzak, laguntzen deialdiak, programak...) deskribapena, azterketa eta hobekuntza egingo du.

Jarduerak EHSSLren 17.4 artikuluaaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoari erantzuten dio: <<Zehazkiago, Hirugarren Sektore Sozialaren erakundeen eta sareen funtzionamendua errazteko, gizarte-politiken eskumena duen sailak sustatuko dituen diru-laguntzen eta laguntzen deialdiak zerrendatuko dira, baita Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erakundeek eta sareek egiten dituzten lurraldez gaindiko interes orokorreko gizarte-jarduerak ere>>.

Gainera, testuinguru sozioekonomiko berri batean eta EHSSko erakundeen eta sareen eskariari erantzunez, ezagutzaren kudeaketaren jardueretarako laguntzak berreskuratuko dira, erakundeek eta erantzukizun publikoko sistemek beraiek gizarterako oro har, gizarte-arloko esku-hartzearen hartzaile diren pertsonentzat, familientzat eta komunitateentzat egiten dituzten beharrak hautemateko funtzioen eta berrikuntzen garrantzia kontuan hartuta.

Justifikazioa

Hala, gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, erantzukizun publikoko zerbitzu ugari erakundeek 3 funtzio egin izanaren ondorioz jarri dira abian: a) behar berriak hautematea; b) zerbitzuak espermentalki abian jartzea, haiek sistematizatzea, eta gero eta lankidetzari handiagoa izatea administrazio publikoekin, haien hornidurarako; c) eragiteko ekintzak garatzea, sektore publikoarekin elkarrizketan, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatzeko.

Bestetik, laguntza-ildo horiek eta planteatu daitezkeen beste batzuk deialdi bakar batean bateratzeak laguntzak sinplifikatzeko irizpide bati erantzuten dio. Horri dagokionez, 10. jardueran adierazi den moduan, laguntza-deialdiak bateratu eta sinplifikatu nahi dira (arrazoizkoa den heinean, eta, gutxienez, Zuzendaritza bakoitzaren edo Sail bakoitzaren esparruan) eta pixkanaka aurrera egin EHSSko erakundeei eta sareei laguntzeko sistema integral baterantz, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen eremuan. Horren haritik, jarduera honetan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntza eta laguntza guztien zerrenda sartu da, bai eta irizpideak eta betekizunak bateratzera, prozedurak sinplifikatzera, bikoiztasun posibleak ezabatuz, bete gabeko beharrak identifikatzera, laguntza-sistematan euskal administrazio publikoetako beste maila batzuetako koordinazioa hobetzera eta kontrola indartzera bideratutako azterketa bat egitea ere.

Emitzen adierazleak	Gaur egun, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Gizarte Zerbitzuak), HSSko erakundeentzako laguntza-ildoen bitartez, interes orokorreko gizarte-jarduerei laguntza ematen ari da lurraldez gaindiko eremuan, bai eta izaera esperimentaleko beste proiektu batzuk eta esku-hartzeko beste proiektu batzuk laguntzen ere, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen eremuan, eremu horretan sartzen ez diren beste proiektu batzuekin batera. Hala ere, pixkanaka, laguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko eremukoak diren jardueretara eta proiektuetara bideratu beharko dira.
	- Sareen funtzionamendua errazteko emandako diru-laguntza izendunen kopurua, haien edukia eta egikaritze-txostenak (diru-laguntza izendun gisa artikulatzen direnez ezin dira laguntzen deialdietan sartu).
	- Lurraldez gaindiko eremuko interes orokorreko gizarte-arloko jarduerak, izaera berritzaileko proiektuek edo Eusko Jaurlaritzaren eskumenen eremuko esku-hartzeko beste proiektu batzuek osatzen dituzten hiru deialdietako bakoitzean onartutako proiektuen kopurua eta zer motatakoak diren.
	- Mota horretako proiektuak pixkanaka handitzea eta gainerakoak murriztea.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
1 Laguntzak diseinatzea, argitaratzea, egikaritzea eta baloratzea, EHSSko erakundeek eta sareek deialdiaren diseinuan, balorazioan eta eguneratzean parte hartzen dutela (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza).	2018 (diseinua eta argitalpena) 2019... (balorazioa eta eguneratzea)	- Deialdi berria bateratuta eta zabaldua argitaratzea. - Balorazio-txostena.
2 Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak EHSSrako ematen dituen diru-laguntzen (berriazkoak edo ez) deskribapena, erakundeek eta sareek zer diru-laguntza eta laguntza eskuratzeko aukera duten eta zeini eskuratzeko aukera izan dezaketean adieraziz. Datuak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin beharreko <i>EHSSren sustapen-neurriei buruzko urteko txostenean</i> sartuko dira, EHSSLren 19. artikuluan aurreikusitakoa betez.	2018...	- Azalpen-txostena eginda, zabaldua eta eguneratuta, eta datuak sartuta.
3 Sailak EHSSko erakundeei eta sareei ematen dien laguntzaren sistema (diru-laguntzak, laguntzak, programak, behatokiak...) deskribatzera, hobetzeko orientabideak aztertzea eta definitzea, eta hobekuntzak aplikatzea eta ebaluatzea, laguntza-sistema aldiari behin eguneratuz, eta, horretarako, EHSSko erakundeek eta sareek parte-hartzea izanez.	2019 (deskribapena eta azterketa) 2020... (hobekuntzen aplikazioa) 2020 (tarteko ebaluazioa)	- Azterketa osteko txostena, hobekuntzarako orientabideak barne hartzen dituena. - Tarteko ebaluazioaren txostena.

→ 17. JARDUERA **3. helburua: SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ**

Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurarekin eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan EHSSko erakundeen interes orokorreko beste jarduera batzuekin lotutako gizarte-azpiegiturak sustatzeko plana.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
5. Inbersioak eta azpiegiturak. 8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena. 6. Sektore publikoarekiko lankidetzak.	Eusko Jaurlaritzak eta EHSSko sareak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila buru dela, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan.		
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzak, EHSSko sareekin batera, EHSSko erakundeen gizarte-azpiegituren beharrak ebaluatuko ditu, bai erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen dutenekin lotuta, bai gizarte-arloko esku-hartzearen interes orokorreko beste jarduera batzuekin lotuta, eta hori garatzeko plan bat abian jarriko du.		
Justifikazioa	<p>Erantzukizun publikoko sistemen eta espazioen garapenari eragiten dioten gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan azpiegituren defizita dago; adibidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta gizartearen eta etxebizitzaren arteko espazioari (etxebizitzaren gizarte-programak), bai eta eremu horretako erakundeetarako interes orokorrekoak diren beste jarduera batzuk garatzeari ere.</p> <p>EHSSLren 21.1 artikulua ezartzen duenez, Euskadiko administrazio publikoak neurriak hartzen ahaleginduko dira, indar eta konpromiso handiagoarekin Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen eta sareen ekarpena handiena den esparruetan, instalazio eta azpiegitura egokiak izan ditzaten interes orokorreko gizarte-jarduerak garatzeko.</p> <p>EHSSko erakundeek ez dituzte beti izaten beren titulartasuneko azpiegiturak erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko, eta administrazio publikoek ere ez dituzte beti baliabideak izaten gizarte-ostatuaren beharrei erantzuteko.</p> <p>Hala, badirudi handitu eta hobetu egin behar direla azpiegitura propioak eta erakundeek kudeatzen dituztenak, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurarekin lotutakoak gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, haien ezaugarriak araudian eskatutako estandarretara egokituz.</p> <p>Horretarako, mailegua eskuratzea sustatzeaz gain (ikus 16. jarduera), Euskal Autonomia Erkidego mailan (Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Saila) eta Europa mailan (FEDER, Interreg, kohesio-funtsak, Europarako Inbertsio Plana...) erakundeentzako sarbidea hobetu behar da existitzen diren laguntza-programetan, gizarte-azpiegiturak handitzeko eta hobetzeko aukera emateko.</p>		
Emaitzen adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> - Planean aurreikusitako neurrien bitartez sortutako gizarte-azpiegituren kopurua: maileguak eskuratuz, itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez, titulartasun publikoko edo hirugarrenen baliabideen lagapenen bidez, etab. Gaitutako azpiegituren kopurua. - Existitzen diren gizarte-azpiegiturretatik berri direnen kopurua (berriazko araudiari, eskuragarritasunari, efizientzia energetikoari eta abarri egokituak). - Azpiegiturak handitu dituzten erakundeen kopurua eta zer motatakoak diren. - Azpiegiturak hobetu dituzten (egokitu) erakundeen kopurua eta zer motatakoak diren. 		

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
1 Beharrak ebaluatzea eta plana egitea, sareen parte-hartzearekin, eta hartan aurreikusitako neurriak abian jartzea eta ebaluatzea, hurrengoak haien artean sartuta.	2018 (egitea) 2019... (garapena) 2020 (ebaluazioa).	<ul style="list-style-type: none"> - Beharren eta baliabideen ebaluazioaren txosten laburra eginda. - Plana eginda, hartan sartutako neurriak efektiboki egikarituta eta tarteko ebaluazioa eginda.
2 Gizarte-erabilerarako erabilgarri dauden azpiegitura publikoei (Eusko Jaurlaritzak kudeatutako parke publikoaren baliabideak) buruzko informazioa, eta haien ezaugarriei buruzkoa (Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Saila).	2018...	<ul style="list-style-type: none"> - Emandako informazioa etengabe eguneratzea 2019tik aurrera.
3 EHSSko erakundeei lokalak uztea, interes orokorreko jarduerak garatzeko eta EHSSko erakundeak "etxebizitza-gaietan EAEn laguntzak emateko programetan" ¹⁷ sartzea errazteko, etxebizitzaren gizarte-programak (ikusi 2. jarduera) edo gizarte-helburua duten etxebizitza-gaietako beste jarduera batzuk bultzatzeko (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila).	2019-2020	<ul style="list-style-type: none"> - Erakundeei lekua emateko, identifikatutako eta laguntza-programetan sartutako hobekuntzen kopurua, beharren ebaluazioarekin eta jasotako eskariekin koherentzian (laguntza-programa berriak abian jartzea sartuta, hala badagokio, jarduera babesgarriei dagokienez, edo haien baitako laguntza zehatzei dagokienez). - Laguntza-programetan sarbidea duten erakundeen kopurua, zer motatako erakundeak diren eta zer laguntza eskuratzen dituzten. - Titulartasun publikoko lokalak (Eusko Jaurlaritzaren parke publikoak) uzten dizkieten erakundeen kopurua eta zer motatako erakundeak diren.
4 Erakundeentzako Europako finantzaketa sustatzea, gizarte-azpiegiturak garatzeko eta hobetzeko, proiektu propioen bidez edo sektore publikoarekin lankidetzan (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).	2019-2020	<ul style="list-style-type: none"> - Europako finantzaketa lortu duten erakundeen kopurua eta Europako finantzaketari esker gaitutako gizarte-azpiegituren kopurua (ostatu-alternatibak eta beste batzuk).

→ 18. JARDUERA 3. helburua: SEKTORE PUBLIKOAREN ETA HSS-REN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEKO/INDARTZEKO EKINTZAREN BITARTEZ

EHSSLren 16. artikuluan jasotako erakundeen betebeharren irismena argitzea, eta laguntzak

Inpaktua

Lehenetasuna

¹⁷ http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/es/contenidos/informacion/programas_ayudas_capv_3/es_def/index.shtml

diseinatzea, hala badagokio, betebeharrak betetzeko, aldizkako ebaluazio- eta kontrol- mekanismoak eta zehapen- araubide zehatzak eta egokio garatu behar diren lehenengo	Goi-maila/ Tarteko maila/ Baxua	Handia /Ertaina/Txikia
Eremua	Arduradunak	
4. Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea.	Eusko Jaurlaritzak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila), beste euskal administrazio publiko batzuekin koordinatuta, eta erakundeen eta sareen parte-hartzearekin.	
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzak, EHSSLren arau-garapenaren bidez, 16. artikuluan jasotako betebeharren irismena argituko du, eta horiek, beste alderdi batzuen artean, erakundeen tamainara eta euskal administrazio publikoekiko lankidetzaren edo elkarlanaren intentsitate eta edukietara egokituko dira; eta, kasu guztietan, gutxienez erakunde txikiek eta ertainek, eta erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran parte hartzen ez dutenek ez dute haien jardueraren ebaluazioan ikuspegi anitz hartu beharrik eta ez dute urteko kontuen kanpoko ikuskaritzak egiteko beharrik (edo ez dute inolako zigorrik izango horri dagokionez).	
Justifikazioa	<p data-bbox="412 584 2089 708">EHSSri buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak 16. artikulua zenbait betebeharrak ezartzen ditu euskal administrazio publikoekin lankidetzan edo elkarlanean jarduten duten EHSSko erakundeentzat, bai eta alde guztien parte-hartzearekin kontrol-mekanismoak eta beharrezko aldizkako ebaluazioa sustatzeko administrazioen betebeharrak ere. Gainera, zehapen-araubiderik zehaztu gabe, ezartzen du betebeharrak ez betetzeak euskal administrazio publikoekiko lankidetzak eta elkarlana bertan behera uztea ekar dezakeela.</p> <p data-bbox="412 740 2089 928">Betebeharrak orekatu egiten dituzte beste alde batetik Legeak EHSSko erakundeei modu zabalean aitortzen dizkien eskubideak, eta, bereziki, erakundeek politika publikoetan parte hartzeko duten eskubidea, beren fase guztietan, egikaritze-fasea barne, elkarriketa zibilaren printzipioa betetz (7. artikulua). Eta, termino orokorretan, egokitzen eta eskubideekiko proportzionatutzat jotzen dira. Hain zuzen ere, zenbait kasutan, berariazko arauetan ezarritakoetara jotzen da. Beste batzuetan, legeak berak ezartzen du erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan aritzen diren erakundeak soilik daudela derrigortuta, ordainpeko langileak dituztenak edo tamaina jakin bat dutenak; hori gertatzen da, adibidez, f letran (horrek ere proportzionatua dirudi eta eskubideak eta betebeharrak orekatzeko legegilearen asmorako egokia).</p> <p data-bbox="412 960 2089 1117">Hala ere, beste kasu batzuetan, betetzen direla egiaztatzeko betebeharrak edo estandarrak ezartzen dira, enpresa txikiek eta ertainek, edo erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan jarduten ez dutenek, nekez bete ditzaketenak; eta, are garrantzitsuagoa dena, proportzionaltasun-irizpideari dagokionez ere bete ezin dituztenak. Hori da c letraren kasua, gutxienez, jardueraren inpaktua ebaluatzeko orduan hartu beharreko ikuspegi anitzei dagokienez; eta l letrarena, urteko kontuen kanpoko ikuskaritzak egiteari dagokionez, kontuan hartuta erakunde horiek kudeatzen duten bolumen ekonomikoa, jasotzen dituzten diru-laguntzen zenbatekoak eta kanpoko ikuskaritzak baten kostu minimoak.</p> <p data-bbox="412 1149 2089 1232">Azkenik, ez litzateke oso zentzuzkoa erakundeentzako betebeharren esparru bat ezartzea, ebaluaziorik eta kontrolrik gabe, ez eta zehapen-araubide zehatz eta egokirik gabe ere; baina, aurrez, erakundeen betebeharrak argitu beharko lirateke, hemen planteatzen den moduan, eta, hala egokituz gero, horiek betetzeko beharrezko laguntzak garatu beharko lirateke.</p>	

Emaitzen adierazleak

- Erakundeen betebeharren irismena jardueraren deskribapenean adierazitako moduan argitzea.
- Alde guztiek parte hartzeko beharrezkoak diren aldizkako ebaluazio- eta kontrol-mekanismoak definitzea eta garatzea, EHSSLren 16.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, erakundeen betebeharren irismena argitu ondoren.
- 16. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzearekin lotutako zehapen-araubidea definitzea eta garatzea, definitutako ebaluazio- eta kontrol-mekanismoekin koherentea dena, konfiantza sortzen duena, eta, beraz, proportzionatua dena, HSSko erakundeekiko lankidetzan edo elkarlana bertan behera uzteko administrazio publikoek duten ahalmena behar bezala kokatzen duena, eta araudi orokorrean aurreikusitakoarekin koherentea dena (kontuen auditoria-legea eta lege hori arautzen duen errege-dekretua), bai eta irudi juridiko bakoitzaren berariazko araudiarekin ere (erabilera publikoko fundazioak eta asoziazioak, alde batetik, eta beste batzuk).

Ekintzak¹⁸

Epeak

Jarraipen-adierazleak

1 Eusko Jaurlaritzak 16. artikulua arau-garapenari ekiten ez dion artean, euskal administrazio publikoek, artikuluko horretan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik, zehapenik ezin dutela jarri ezartzea (indarrean dauden beste arau batzuetan aurreikusitakoak izan ezik, beren zehapen-araubidea dutenetan).

2018

- Gai hori argituko duen arau bat edo tresna bat onartzea.

Ekintzak

Epeak

Jarraipen-adierazleak

¹⁸ Ekintza guztietan erakundeek eta sareek hartuko dute parte, eta ezaugarri desberdineko erakundeen errealitatea eta iritzia kontuan hartuta: zenbait irudi juridiko, zenbait neurritakoak, zenbait funtzio (erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzan jarduten duten erakundeak eta jarduten ez dutenak), etab.

<p>2 16. artikulua arau-garapena, betebeharren, zehapen-araubidearen, beharrezkoak diren ebaluazio- eta kontrol-mekanismoen, eta hura zabaltzeko ardura duten instituzioen eta erakundearen (fundazioak babesteaz gain) definizioa barne hartuta, alderdi hauek kontuan hartuko dituen kontsulta-prozesu baten ondoren:</p> <ul style="list-style-type: none"> - EHSSko erakundeentzat, denetarioak diren betebeharrak ezartzeko bidezkoasuna eta aukera (legezkoa, praktikoa...): laguntzekin bete daitezkeen betebeharrak, zenbait erakunde-motak bete behar ez lituzketen betebeharrak, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen eta ez dituen betebeharrak (kontuen auditoria-legea eta lege horren araudia arautzen duen errege-dekretua, fundazioen legea...)¹⁹, etab. - Betebehar horiek betetzeko, erakundeek eska ditzaketan laguntzen definizioa, hala badagokio. 	<p>2019-2020</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesua eginda eta 16. artikuluan ezarritako erakundearen betebeharren irismena argituta, jardueraren eta ekintzen deskribapenean ezarritako irizpideak betez. - Betebeharrak betetzeko eskatutako laguntzak identifikatzea eta antolatzea. - Dekretua onartzea, ekintzaren deskribapenean eta emaitzen adierazleetan ezarritako irizpideak betez.
---	------------------	---

¹⁹ Kanpoko auditorien kasuan, kontuan hartu behar dira ezartzen dituzten betebeharrak, ezartzen ez dituztenak, indarrean dagoen araudi orokorra eta berariazkoa. Zehazki, arrazoizkoa litzateke kontuen ikuskaritza bat egiteko betebeharra ezartzea, kontuen auditoria-legeak ezartzen dituen bi irizpide oinarri hartuta: garrantzi ekonomikoa (erabilera publikoko fundazioak eta asoziazioak arautzean ere kontuan hartzen dena) hiru adierazletik bi gaindituta (aktiboa, diru-sarrerak eta pertsonala) gutxienez bi urtez; eta administrazio publikoetatik 600.000 euro baino gehiago jasotzea.

→ 28. JARDUERA

4. helburua: SEKTOREAREN NORTASUNA, EGITURAKETA ETA ONARPENA

EHSSren eta erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatu, onartu eta sustatzea.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
9. Nortasuna.		EHSSko sareak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.	
8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena.			
Deskribapena	<p>Eusko Jaurlaritzak eta EHSSko sareek sektorearen eta erakunde bakoitzaren guztizko balioa identifikatzeko, onartzeko eta sustatzeko aukera ematen duten neurriak bultzatuko ditu, bai eta horiek zerbitzuen horniduran duten balio erantsia ere; bereziki, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran: sektorearen gizarte-ekarpen globalaren (guztizko balioa) eta zerbitzuen horniduraren balio erantsiaren ebaluazio-azterketak; jardunbide egokiak trukatzeko sistemak eta guztizko balioaren eta balio erantsiaren etengabeko hobekuntza; kontratuen, kontzertuen eta hitzarmenen araudietan aurreikusitako sartzeko baldintzak eta diskriminazio positiboko neurriak sartzearen eta garatzearen identifikazioa eta analisia.</p>		
Justifikazioa	<p>Jarduera EHSSLren 12 artikuluauren laugarren atalean aurreikusitakoarekin lotuta dago: <<Euskal administrazio publikoek sustatuko dituzte erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketari balio erantsia ekarriko dioten jardunbideak, eta, bereziki, esku-hartze sozialaren eremuko arau sektorialetan hartutako arreta-ereduei eta kalitate-irizpideei lotutako jardunbide guztiak, baita beste batzuk ere, hala nola sor zitekeen etekina hirugarren sektore sozialeko erakundeen misioan edo helburu sozialean berriz inbertitzea>>.</p> <p>Horren haritik, kontuan hartu behar da abian jarri zuten zerbitzuen horniduran parte hartzen duten, eta, pixkanaka, erantzukizun publikoko zerbitzu bihurtu diren EHSSko erakunde askoren praktikak bat datozela eredu komunitarioa eta <i>Gizarte-zerbitzuen kalitatearen Europako borondatezko esparrua</i> (pertsonalizazioa, integralitatea, jarraitutasuna, gertutasuna arretan...) definitzen dituzten estandarrekin, eta, beraz, erantzukizun publikoko sistemek nahi dituzten arretaren ezaugarriekin, eta araudian definitutako pertsona eta familia erabiltzaileen eskubideekin. Eta, hartara, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurari balioa gehitzen diote.</p> <p>Eta, bestetik, funtzio hori oso garrantzitsua izanda ere, sektorearen ekarpen globala, guztizko balioa, estandarizatutako zerbitzuen hornidura baino askoz harago doala, eta funtsezkoak diren beste funtzio batzuei eragiten diela; adibidez, sentsibilizazioa, eskubideen salaketa eta sustapena, berrikuntza, ikerketa eta beharrak hautematea, herritarren parte-hartze solidarioa artikulatzea, etab.</p> <p>Erakundeen gizarte-ekarpenaren osotasunari eta erakundeen denetariko funtzioen arteko orekari eustea eta hori sustatzea, beraz, gakoa da gizarte-arloko esku-hartzearen hartzailak diren pertsonentzat eta gizartean oro har, baina, baita gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan EHSSko erakundeekin lankidetzan aritzen diren erantzukizun publikoko sistemetarako eta espazioetarako ere.</p>		

Emaitzen adierazleak

- Sektorearekin adostutako eta hirugarrenekin (kanpoko interes-taldeak, pertsona erabiltzaileei edo hartzaileei arreta berezia jarrita) kontratatutako dokumentuak, erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatzeko, sektorearen nortasunarekin (misioa eta balioak) eta araudi-esparruan definitutako estandarrekin eta erabiltzaileen eskubideekin koherente izanik.
- Guztizko balioaren eta balio erantsiaren ebaluazio-azterketatik eratorritako txostenak zerbitzuen horniduran.
- Jardunbide egokiak definituta eta hedatuta.
- Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, kontratuetako, kontzertuetako eta hitzarmenetako sartzeko baldintzak eta diskriminazio positiboko neurriak sartzeko eta garatzeko txostena, zenbait ondorio eta orientabide praktiko ere badituena.

Ekintzak

Epeak

Jarraipen-adierazleak

1 Gaur egun arte, zerbitzuen horniduraren guztizko balioari eta balio erantsiari buruz HSSko erakundeek egindako lanak zabaltea.

2018 eta ondorengoak

- Hedapen-ekintzak egin dira.

2 EHSSko sareetatik, eta, zehazki, Sareen Sarea elkartetik hauek sortzea:

a) **autoebaluazioko sistema bat eta tresna bat, erakundeek beren guztizko balioa eta zerbitzuen hornidurari ematen dioten balio erantsiak kontrastatzeko;**

2018 eta ondorengoak

- Autoebaluazioko sistema eta tresna diseinatuta.
- Jardunbide egokiak trukatzeko espazioak definituta eta abian jarrita.

b) **Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruetan existitzen diren praktikak trukatzeko espazioak, online eta aurrez aurrekoak, balio osoarekin (erakundeen funtzioak kontuan hartuta) eta zerbitzuen hornidurari ematen dioten balio erantsiarekin lotuta, bereziki, baina ez soilik erantzukizun publikoekin.**

2020 (tarteko ebaluazioa)

- Tresna erabiltzen duten eta/edo jardunbideak trukatzeko espazioetan parte hartzen duten erakundeen kopurua eta zer motatako erakundeak diren.
- Tarteko ebaluazio-txostena.

EHSS eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimen bat sustatzea.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/ Tarteko maila/Baxua	Handia /Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena. 4. Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea.	EHSSko erakundeak eta sareak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.		
Deskribapena	<p>EHSSko erakundeek eta sareek, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, EHSS, haren errealitatea eta ekarpena ezagutzera emateko ekimen bat diseinatuko eta bultzatuko dute, bai eta esku-hartzearen hartzaileak diren pertsona, familia, talde eta komunitateak ere.</p> <p>Komunikazio-ekintzetan: a) arreta jarriko zaie, ez eskusiboa baina bai berariazkoa, pertsonen, familien, taldeen eta komunitateen osatutako elkartei, bai eta ATEei ere; b) EHSS errealitate bakar gisa (ekimeneko eta gizarte-arloko esku-hartzeko erakundeak) hautematea bultzatuko da, nortasun (misioa eta balioak) partekatua duena.</p>		
Justifikazioa	<p>EHSSLren 22.1 artikulua dioenez, EHSSko erakundeek eta sareek ekimen bat sustatuko dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, EHSS eta haren ekarpena ezagutarazteko herritarrei oro har eta gizarte-eragileei, besteak beste, ekintza hauek sartuko dituenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Euskadiko HSSri eta euskal gizarteari kuantitatiboki egindako ekarpenari buruzko oinarritzko informazioa zabaltzea; b) sektore publikoarekin eta beste gizarte-eragile batzuekin harremanetan egotea aldizka; c) komunikabide sozialetan, publikoetan zein pribatuetan, informazio-ekintzetan parte hartzea, eta komunikabide horiekin akordioak formalizatzea lankidetzan zenbait komunikazio-ekintza egiteko; d) egun esanguratsu bati buruzko urteko kanpaina bat egitea; e) sentikortze- eta prestatze-ekintzak egitea, hirugarren sektorearen organizazioen eta sareen partaidetzaz, ikastetxeetan; f) EHSSko erakundeen aldizkako biltzar bat egitea, sektorearen erakundeentzat eta sareentzat eta beste eragile batzuentzat erreferentzia izango dena. <p>Komunikazio-ekintzek sektorearen gizarte-ekarpenaren identifikazio sistematikoa behar dute euskarri gisa (ikus 28. Jarduera, guztizko balioari eta balio erantsiari buruzkoa) eta herritarren sektorearekiko ikuspegia zabaltzea bilatzen dute, erakunde jakin batzuk identifikatzetik harago (normalean, historikoenak, handienak eta ezagunenak). Gainera, legean aurreikusitako zenbait ekintzaren helburua da sektorea egituratzen laguntzea eta nortasun partekatua duten erakundeak identifikatzea, erakundeen eta haien ekarpenaren definizio positiboa abiapuntu hartuta. Azkenik, zenbait termino erabiltzen dira Hirugarren Sektorea adierazteko (irabazizkoak ez diren erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, irabazizkoak ez diren instituzioak, gobernu kanpoko erakundeak, elkarteak oro har...) eta arrazoizkoa dirudi araudian definitutako terminoa erabiltzeak (hirugarren sektoreko edo gizarte-arloko esku-hartzeko erakundeak eta hirugarren sektore sozialeko edo ekimeneko eta gizarte-arloko</p>		

Emaitzen adierazleak

esku-hartzeko erakundeak).
<ul style="list-style-type: none"> - Aldaketak EHSSren gizarte-hautematean, alderdi hauek garatuz: <ul style="list-style-type: none"> o Osotasunaren hautemate bat, kontuan hartuko duena erakunde guztiek partekatzen dituzten ezaugarriak (gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeak) eta sektorearen aniztasuna (txikiak, ertainak eta handiak; pertsona, familia, talde eta komunitate hartzaileek beraiek eratuak eta hirugarrenen aldekoak, boluntarioak dituztenak eta ez dituztenak, etab.). o Erakundeen gizarte-ekarpenari buruzko hautemate bat (funtzioak eta emaitzak, gizarteari egindako berariazko ekarpenak identifikatuz). - Sektoreko erakundeak gero eta gehiago identifikatzea eraikitzen ari diren nortasunarekin, eta, kasu honetan, gizartean komunikatuz.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
1 Lau urteko komunikazio-plan bat egitea, gizarte-inpaktuko ekintzak aurreikusten dituen, sektorea ikusgarri bihurtzeko, ekintzak komunikabide sozialetan partekatuz, sare sozialak erabiliz, kalean aurkeztuz, etab.	2018	<ul style="list-style-type: none"> - Plana eginda, garatuta eta ebaluatuta. - Egindako sentsibilizazio-ekintzen kopurua eta zer motatakoak diren.
2 Sareetatik komunikazio-irizpideak eta mezuak bateratzea pixkanaka, eta kanalak eta prozedurak ezartzea (horiek ere sareetatik), komunikazio-ekintzetan parte hartzeko beharrei eta eskaerei erantzuteko (presentzia komunikabide sozialetan, ekitaldietan parte hartzea, etab.).	2019	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-irizpideak eta mezuak gero eta adostuago. - Kanalak eta prozedurak definituta.
3 Sektorearen bozeramailtza beren gain hartuko duten zenbait eremu, lurralde historiko, profil (bazkideak, boluntarioak, ordainpekoak, erabiltzaileak edo izandakoak eta haien senideak...) eta erakunde-motatako (txikiak, ertainak eta handiak; gizarte-arloko esku-hartzearen pertsona hartzaileek beraiek eratuak eta hirugarrenen aldekoak) pertsonen multzo bat identifikatzea eta trebatzea.	2018	<ul style="list-style-type: none"> - Behar adina pertsona identifikatuta eta trebatuta, taldeko dinamika sortuz.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>4 EITB taldearekin eta beste komunikabide sozial publiko eta pribatu batzuekin akordioak formalizatzea eta sareen eta komunikabideen arteko elkarrizketarako eta elkar ezagutzeko topaketaren bat antolatzea.</p>	<p>2018 eta ondorengoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Formalizatutako akordioen kopurua eta zer komunikabiderek formalizatu diren. - Topaketak antolatuta eta haien emaitzak.
<p>5 Aldizkako biltzar bat antolatzea eta egun esanguratsu bati buruzko kanpaina bat egitea (maiatzak 12, EHSSL onartu zeneko urteurrena), sektorea ikusgarri bihurtzeko eta sektorearen bozgorailu izateko.</p>	<p>Aldizkako biltzarra. Urteko kanpaina</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Biltzarra antolatuta eta haren emaitzak. - Komunikazio-kanpaina antolatuta eta haren emaitzak (sektorearen eta haren ekarpenaren ikusgarritasuna, adierazpenak komunikabideetan...).
<p>6 Hirugarren Sektore eta Hirugarren Sektore Sozial terminoak sustatzea eta haien jarraipena egitea, hala badagokio, edo ekimeneko eta gizarte-arloko esku-hartzearen esparruko erakundeak gizartean positiboki adierazteko, komunikabideetan eta instituzioetan.</p>	<p>2018 eta ondorengoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hirugarren Sektoreari eta Hirugarren Sektore Sozialari egindako erreferentzien proportzioa komunikabideen, dekretuen eta abarren erreferentzien lagin bateko erreferentzia guztiekiko, aldi jakin batean.

→ 32. JARDUERA

5. helburua: I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

EHSSko erakundeei eta sareei buruzko erregistroa hobetzeko eta erregistro-datuen erabilgarritasuna hobetzeko ekintzak sustatzea.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/ Tarteko maila/Bayua	Handia/Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
4. Jasangarritasuna, autonomia, gardentasuna eta kontu-ematea.		Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, EHSSko erakundeekin eta sareekin lankidetzan.	
Deskribapena	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, EHSSko sareekin lankidetzan, kanpaina bat bultzatuko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legetik eratorritako beharrak jakitera emateko, eta, bereziki, tramitazio telematikoan 2018ko urritik aurrera planteatzen diren betebeharrak ²⁰ , bai eta datuen erregistro elektronikoaren eta transmisio telematikoaren garapenetik eratorritako erronka, zailtasun eta aukerei buruzko eta EHSSko erakundeek testuinguru berri horretara egokitzeko behar dituzten prozesuei eta laguntzei buruzko mintegi/tailer bat ere, ATEei arreta berezia jarrita.		
Justifikazioa	<p>Jarduera Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakotik eratorritako beharrekin lotuta dago, eta, bereziki, lege horren 16. artikuluaekin, erregistro-idazpenen erregistro elektronikoaren eta transmisio telematikoaren gaietara edozein erregistrotan aurkeztutako dokumentuei dagokienez.</p> <p>Gai horrekin lotuta, 2018ko urrira arte dokumentazioa paperen aurrez aurre aurkezteko aukera egongo da, elkarleen erregistro nagusian eta fundazioen erregistroan, baina, urritik aurrera, dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Horrek arazoak sor diezazkioke enpresa txikienei eta telematikoki lan egiten ohituta ez daudenei.</p> <p>Saila informazio-kanpainak egiten ari da, erregistroetan dituzten datuak abiapuntu hartuta, mezu elektronikoak eta posta bidezko mezuak bidaliz; baina, erakundeen eta sareen lankidetzari esker, eraginkorragoa izango litzateke eta informazioa erakunde gehiagotara iritsiko litzateke denboratarte laburragoan, besteak beste, informazioa sareetatik bidaliz eta Lurralde Historiko bakoitzean egun bat ospatzea barne hartuko litzuzkeen kanpaina bat eginez.</p>		

²⁰ Legea Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urtean sartu zen indarrean. Hala ere, ahalordetze-erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, gaitutako enplegatu publikoen erregistroari, Administrazioaren Sarbide Puntu Nagusi Elektronikoari eta artxibo bakar elektronikoari buruzko xedapenek legea indarrean sartu eta bi urteren buruan izango dituzte ondorioak.

<p>Emaitzen adierazleak</p>	<p>Bestetik, esperientziari erreparatuta, badirudi beharrezkoa dela zenbait alderdi hobetzea. Esate baterako, erakundeek erregistro-datuak eguneratzea; erakundeekin kontaktu arina izateko aukera emango duten datuak eskura izatea, datuak babestuz aldi berean; edo erregistro-datuak eskuratzea erraztea, sektoreari buruzko txostenak eta azterketak egiteko, eta, bereziki, EHSSLn aurreikusitakoei buruzkoak (ikusi 33. jarduera).</p>	
	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpainaren bidez planteatutako betebeharraren jakiten diren erakundeen (txikiak, ertainak eta handiak; asoziazioak eta fundazioak, zenbait eremutakoak...) kopurua eta zer motatako erakundeak diren. 	
Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
<p>1 EHSSko sareekin lankidetzan, 39/2015 Legeari eta Elkarteen Erregistro Nagusian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan tramitazio telematikoa erabiltzeko betebeharrari buruzko hedapen-kanpaina bat diseinatzea eta egitea, eta, hala badagokio, aurkezpen-jardunaldi bat antolatzea Lurralde Historiko bakoitzean.</p>	<p>2018</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpaina diseinatuta eta eginda. - Kanpainan parte hartu duten EHSSko sareen kopurua eta zer motatakoak diren. - Hedapen-kanpainaren hartzaileak izan diren erakundeen kopurua eta zer motatakoak diren. - Egindako jardunaldiak, zenbat erakundek parte hartu duten eta zer motatakoak diren.
<p>2 Administrazio publikoentzat eta EHSSko erakundeentzat, beste alderdi batzuen artean, erregistro elektronikoak eta datuen transmisio telematikoa garatzeak dakartzaten erronkei, zailtasunei eta aukerei buruzko mintegi/tailer bat antolatzea. Bai eta EHSSko zenbait motatako erakunde testuinguru berri horretara egokitzeko sustatu beharreko prozesuei eta laguntzei buruzkoak ere, ATEei arreta berezia jarrita.</p> <p><i>Erregistroen, EHSSko sareen eta HSSri buruzko ikerketan esperientzia duten zentroyen arduradunak partaide izango dituen mintegi/taillerrak zenbait saio praktiko egingo ditu, eta aurrez zenbait motatako erakundeekin, erregistroen arduradunekin eta beste aditu batzuekin kontrastatuz identifikatutako zailtasunen eta hobetu beharreko eremuen analisia hartuko du abiapuntutzat.</i></p>	<p>2019</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegia eginda, Eusko Jaurlaritzaren (Sailaren eta erregistroen arduradunak), EHSSko sareen eta HSSri buruzko ikerketan esperientzia duten zentroyen parte-hartzearekin. - Ondorioen txostena, analisiko elementuak eta hobekuntzarako orientazioak barne hartzen dituen. - Justifikazioan adierazitako hiru hobekuntza-eremuekin eta identifikatu daitezkeen beste batzuekin lotutako helburuak eta helburu horiek lortzeko sartu beharreko neurri zehatzak identifikatzea.

→ 33. JARDUERA

5. helburua: I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

EHSSren egoerari, sustapen-neurriei eta estrategiaren zabalkundeari buruzko ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako ziklo bat abian jartzea.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
<p>8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena.</p> <p>3. EHSSren egituraketa eta erakundeen arteko elkarlana.</p>		<p>Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, izatekotan, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren laguntzarekin, barometroa egiteko bederen (EHSSLren 25.2 artikuluan aurreikusitakoa betez), eta, hala badagokio, EHSS sustatzeko neurriei buruzko urteko txostena eta Liburu Zuria.</p>	
Deskribapena	<p>Eusko Jaurlaritzak abian jarriko du EHSSren egoerari eta strategiaren zabalkundearen ebaluazioari buruzko ikerketaren aldizkako ziklo bat, legeak strategiaren ebaluazioari buruz (17.6 artikulua) aurreikusitakoarekin koherente izanik, barne hartuko dituena 25.2 artikuluan (barometroa) aurreikusitako <i>bi urtean behingo txostenaren</i> 19. artikuluan aurreikusitako <i>Sustapen-neurriei buruzko urteko txostena</i> egitea eta lau urtean behingo <i>EHSSren Liburu Zuria</i>, dagokion <i>bi urtean behingo txostena</i> integratuko duena, eta, hala badagokio, 17.6 artikuluan aurreikusitakoarekin koherenteak diren etorkizuneko estrategiak egiteko oinarria izan dadin.²¹</p>		
Justifikazioa	<p>Deskribatzean adierazi dugun moduan, jarduera EHSSLn aurreikusitakoarekin lotuta dago, EHSSren egoerari eta bilakaerari buruzko datuak ematen dituzten txostenak egiteari dagokionez, eta strategiaren zabalkundearen ebaluazioa egiteko oinarritzat erabiltzeari dagokionez, eta, hala badagokio, etorkizuneko estrategia egiteko.</p>		
Emaitzen adierazleak	<p>Sektoreari, haren ezaugarriei eta ekarpenari buruzko datu sistematikoak eta aldizkakoak eskura izatea funtsezko oinarria da diagnostikoa, planifikazioa eta ebaluazioa egiteko, eta horrek sektorea egituratzen, erakundeak sektorearekin identifikatzen eta hura onartzen lagundu du eta lagunduko du.</p> <p>EHSSSEren beraren diseinua eta haren emaitzen ebaluazioa egiteko, adierazleek erakusten duten moduan, sektoreari buruzko datuak behar dira. Aldi berean, azterketek eta txostenek praktikara bideratuta egon behar dute, erronkak ezarriz eta hobekuntzarako orientazioak emanez, sektorea bera, sektore publikoa, eta interesa duten eta sustapenean konprometituta dauden beste eragile batzuk inplikatzan dituztenak.</p> <p>- Sektoreari, haren ezaugarriei eta ekarpenari, existitzen diren sustapen-neurriei... buruzko datu sistematikoak, behar adinakoak eta aldizkakoak eskura izatea, sustapen-neurrien eta -strategiaren planifikaziorako eta etengabeko hobekuntzarako oinarri izango direnak, besteak beste.</p>		

²¹ Jarduera hori hobeto ulertzeko, ikusi *Eranskina. EHSSLren aurreikuspenekin koherentea den ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako zikloa*.

- Txostenak egiteari eta estrategia ebaluatzeari dagokionez EHSSLk ezartzen dituen betebeharrak betetzea.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BAROMETROA (bi urtean behingoa) ETA LIBURU ZURIA (lau urtean behingoa)		
1 25.2 artikuluan (barometroa) aurreikusitako bi urtean behingo txostena egitea eta aurkeztea.	2019	- Bi urtean behingo lehen txostena eginda (2019) eta hedatuta.
2 Lau urtean behingo EHSSren Liburu Zuria egitea eta aurkeztea. <i>Bi urtean behingo txostena aldi berean egingo da hura egiteko prozesuak Liburu Zuria egiteko prozesuarekin bat egiten duenean, eta, kasu horretan, haren separata bat izango da.</i> <i>Liburu Zuria oinarri gisa erabiliko da etorkizuneko estrategiak egitean, EHSSko erakundeekin eta sareekin batera orientazioak eta erronkak identifikatuz, fase kuantitatiboan jasotako datuak abiapuntu hartuta garatutako fase kualitatibo batean.</i>	2019 (fase kuantitatiboa) eta 2020 (fase kualitatiboa) eta aurkezpena	- Hirugarren Sektorre Sozialaren Liburu Zuria eginda (2020) eta hedatuta.
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORA SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA		
3 Estrategiaren egikaritzearen jarraipena egiteko urteko txostena egitea (jarraipen-adierazleak abiapuntu hartuta) eta planaren iraunaldiaren amaieran (2020) eta strategiaren amaieran emaitzak ebaluatzeko txosten bat egitea, EHSSLren 17.6 artikuluan aurreikusitakoa betez. Urteko jarraipen-txostenak eta emaitzen ebaluazio-txostena eusko legebiltzarrera igorriko dira eta han aurkeztuko dira, 17.6 artikuluan aurreikusitakoa betez.	Urteko jarraipen-txostena (2018, 2019 eta 2020) Planaren emaitzen ebaluazio-txostena	- Jarraipen-txostenak eginda (3), Eusko Legebiltzarrera igorrita eta bertan aurkeztuta. - Jarraipen-txostena (1) eginda (2020/21), Eusko Legebiltzarrera igorrita eta bertan aurkeztuta (2021).
4 EHSS sustatzeko neurriei buruzko urteko txostena diseinatzea eta egitea.	Urteko diseinua (2018) eta egitea (2019 eta 2020)	- Urteko txostenak (2) eginda eta hedatuta.

→ 34. JARDUERA

5. helburua: I+G+b SOZIALA, ERREALITATEAREN ANALISIA ETA DATUETAN OINARRITUTAKO KUDEAKETA

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia abian jartzea, legean aurreikusitakoa betez.		Inpaktua	Lehentasuna
		Goi-maila/Tarteko maila/Baxua	Handia/Ertaina/Txikia
Eremua		Arduradunak	
8. EHSSren sustapena, fiskalitatea eta onarpena.		Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Foru Aldundiekin batera, hala badagokio, eta parte hartzeko interesa izan dezaketen beste eragile batzuekin eta EHSSko erakundeekin eta sareekin batera.	
Deskribapena	Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, hala nahi duten gainerako euskal administrazio publikoekin eta EHSSko sareekin lankidetzan, Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia diseinatu eta abian jarriko du, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoa betez.		
Justifikazioa	<p>Legearen 25. Artikuluak Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia sortzen du. Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailaren mende egongo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren tresna tekniko bat izango da. Eginkizuntzat edukiko du informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea, sortzea eta ezagutzera ematea, HSSrekin eta hartan sartutako erakunde eta sareekin zerikusia duten arloetan.</p> <p>Gainera, Legeak ezartzen du bi urtean behin sektorearen egoerari eta bilakaerari buruzko txosten zabal eta integral bat egingo dela, jasotako datu estatistikoaren arabera eginda, genero-ikuspegia, haurtzarora eta dibertsitate funtzionala bereziki kontuan hartuta, EEZMraren edo hura ordezkatzeko duen erakunde batera eta Eusko Legebiltzarrera igorriko dena. Eta adierazten du Behatokiak lankidetzan jardungo duela HSSko erakundeekin eta sareekin.</p> <p>Behatoki bat izateak aukera eman dezake sektoreari buruzko, sektorerako eta sektoretik ateratako informazio eta ezagutza garrantzitsua sortzen modu esanguratsuan aurrera egiten jarraitzeko, ikerketa-jarduerak oinarri hartuta; besteak beste, aldizkako azterketak egitea (Liburu Zuria, adibidez) funtsezkoa da, baina informazio- eta dokumentazio-jarduerak ere egin behar dira, bai eta topaketak, hausnarketak, eta ekimenen eta esperientzien sistematizazioa ere (jardunaldiak, mintegiak, tailerrak, argitalpenak...).</p> <p>Azkenik, existitzen da Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatoki bat duela 10 urte baino gehiagotik, eta badirudi zentzuzkoa dela haren esperientzia eta hark garatutako ahalmak aprobetxatzea, ahal den neurrian.</p>		

Emitzen adierazleak

- Behatokia abian jartzea.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legearen 25. artikuluan ezarritako derrigorrezko txostena egitea, gutxienez.
- Egindako beste produktu batzuk, diseinuarekin koherente izanda.

Ekintzak	Epeak	Jarraipen-adierazleak
1 Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia diseinatzea.	2018	<ul style="list-style-type: none">- Behatokiaren diseinua.- Behatokiaren diseinuan Foru Aldundiek, interesa duten beste eragile batzuek eta EHSSko sareek parte hartzea.- Behatokiaren diseinuan Foru Aldundiek, interesa duten beste eragile batzuek eta EHSSko sareek parte hartzea, diseinu partekatuan, egokia bada, eta egoki jotako terminoetan.
2 Behatokia abian jartzea eta lehen jarduerak garatzea, diseinuarekin koherente izanda.	2019 -2020	<ul style="list-style-type: none">- Aurreko jardueran aurreikusitako ekintza batzuk bere gain hartzea, eta harekin lotutako produktuak egitea.
3 Diseinua ebaluatzea eta eguneratzea, beharrezkoak diren alderdietan.	2020	<ul style="list-style-type: none">- Ebaluazioa eginda eta diseinua eguneratuta, hala dagokionean.

6 Planaren zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa

Plana eta estrategia zabaldu, ebaluatu eta eguneratzeko prozedura

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila plana eta estrategia zabaldu, horren jarraipena egin, ebaluatu eta eguneratzeko prozesuaren buru izango da, Lehendakaritza Sailaren (Koordinazio Zuzendaritza) laguntzarekin, eta, horretarako, lantalde bat dinamizatuko du EEZMn, eta urteko jarraipen-txostenak eta emaitzen ebaluazioko azken txostena egiten dela bermatuko du, eta Eusko Legebiltzarrerara igorri eta han aurkeztuko ditu, Legearen 17. artikuluan 6. atalean aurreikusitakoa betez.

Koordinazio Zuzendaritzak legealdi-plana hedatzen lagunduko du eta strategiaren eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten parte hartuko du; dena den, horrek ez du esan nahi lantaldearen bilera guztietan parte hartuko duenik.

Lehendakariak parte hartuko du legealdiaren amaieran egiten den strategiaren emaitzak ebaluatzeko EEZMren bilkura monografikoan. Emaitzen ebaluazioaren txostenak lehenetsiak izan diren eta planean sartu diren EHSSSEren 12 jarduerak kontuan hartuko ditu, bai eta legealdian egindako eguneratzeetan sartutakoa ere, halakorik egonez gero.

Lantaldea:

- 6 pertsonak osatzen dute iraunkorki, Eusko Jaurlaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) ordezkatzeko duten 3 pertsonak eta EEZMn EHSSko erakundeak eta sareak ordezkatzeko dituzten 3 pertsonak. Gobernua, eta, zehazki, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzeko duen pertsona batek bere gain hartuko ditu taldearen dinamizazioa, idazkaritza eta EEZMren dinamika orokorrarekiko lotura. Taldeko bilera guztietan parte hartuko du eta adierazitako sei pertsonen gain laguntza administratiboa eta teknikoa izango ditu.

- Izaera proaktiboa izango du, eta hamabi jardueretako bakoitza eta dagozkien ekintzak zabaltzeko ardura izango du, intentsitate handiagoz hasieran, funtzionatzeko mekanismo argiak eta helburu errealistak izanda, eta Estrategian sartutako beste jarduera batzuk bultzatzeko aukera izanik. Zabalkunde-lanerako, autonomia izango du planaren eta strategiaren zabalkunde antolatzeke, lehentasunak, epeak, ekintzek edukiak (ez jarduerenak) eta abar doituz, eta EEZMren bilkuran informazioa emanez, a posteriori. Eta sartu beharreko edo ezabatu beharreko jardueri eta/edo ekintzei buruzko proposamenak, lehentasun-aldaketak, epe-aldaketak eta abar bilkurara eraman ditzake.
- Une bakoitzean sustatzen ari den jarduera edo ekintza konkretua kontuan hartuta, inplikaturako Gobernuko sailarekin edo sailekin harremanetan jarriko da, bai eta jardueraren edo ekintzaren beste arduradun batzuekin ere, abian jartzeko edo jarraipena egiteko.
- Esperientziak kontrastatzeko eta trukatzeko erlazioa izango du *hirugarren sektore sozialari laguntzeko plana* sustatzeko Generalitateko eta Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taulako arduradunekin (Generalitateak eta Taulak hirugarren sektore sozial kataluniarrari laguntzeko planak egin dituzte elkarrekin, azken hiru legealdietan).

Gainera, funtzionamendua egokia izan dadin, bi aldeek jarrera irekia eta positiboa izan behar dute, ahalegin jarraitua egin eta erreferente gisa jarduten duten eta behar adinako ardura hartzen duten pertsonak esleitu behar dira.

Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna nagusiak

EHSSren sustapen-estrategiaren jarraipenaren urteko txostenak

Jardueren inplementazioa izango du ardatz (ekintzak zenbateraino exekutatu diren), legealdiko planean sartutako 12 jarduerak zehazten dituzten ekintzetako bakoitzean definitutako jarraipen-adierazleak abiapuntu hartuta, bien bitartean beste jarduera edo ekintza batzuk sar daitezkeela ahaztu gabe.

Estrategiaren emaitzak ebaluatzeko txostena, 2020ren amaieran

Ebaluazio horrek legealdiko planean sartutako 12 jardueren inplementazioa izango du ardatz (jarraipen-adierazleak), bai eta helburuen lorpena ere (emaitzen adierazleak), jardueretan sartutako emaitzen adierazleek gida orientagarri bat osatzen dutela ulertuta. Hori ere, modu berean, bien bitartean jarduera gehiago sar daitezkeela ahaztu gabe.

Legaldi honetatik harago jarraipena izango duten jardueren kasuan, berehalako ebaluazio bat egingo da, eta, hala badagokio, bi ikuspegi hartuko ditu: ekintzen exekuzio-maila (jarraipen-adierazleak) eta helburuen betetze-maila (emaitzen adierazleak), biak partzialak badira ere.

Ebaluazioak hurrengo legealdiko plana egiteko kontuan hartu beharko diren zenbait gomendio izango ditu, eta abian dauden jarduerak ere plan horretan sartuko dira.

Bi txostenak EEZMn aurkeztu eta eztabaidatuko dira (lantaldean eta osoko bilkuran) gobernu-kontseilura eta Eusko Legebiltzarrera igorri baino lehen, EHSSLren 17.6 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Beste txosten batzuk

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak **EHSSren sustapen-neurriei buruzko urteko txostena egingo du** (sektore publikoak eta sektore pribatuak bultzatutakoak), eta hobetzeko orientazioak ezarriko ditu, Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoa betez. Orientazio horiek kontuan har daitezke estrategia edo ondorengo legealdi-planak eguneratzeko orduan.

1. ERANSKINA EHSSLren aurreikuspenekin koherentea den ikerketaren eta ebaluazioaren aldizkako zikloa

LEHEN ZIKLOA (laburra)			BIGARREN ZIKLO OSOA (arrunta)			
2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN BAROMETROA ETA LIBURU ZURIA						
Bi urtez behingo txostena diseinatzea (barometroa)	Separata-Barometroa eta aurkezpena		Barometroa eta aurkezpena		Separata-Barometroa eta aurkezpena	
	Liburu Zuria fase kuantitatiboa	Liburu Zuria fase kualitatiboa eta Liburu Zuriaren aurkezpen osoa			Liburu Zuria fase kuantitatiboa	Liburu Zuria fase kualitatiboa eta Liburu Zuriaren aurkezpen osoa
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA						
Estrategiaren (eta planaren) exekuzioaren jarraipenaren urteko txostena eta haren iraunaldiaren amaierako emaitzen ebaluazioaren txostena (17.6 artikulua), eta horretarako legealdiko planaren emaitzen ebaluazioaren txostena egitea aurreikusten da, 2020ren amaieran.			Liburu Zurian oinarritutako estrategia eguneratzea (17.6 artikulua), aurreko legealdiko planaren emaitzen ebaluazioaren txostena ere kontuan hartuta.			

2. ERANSKINA Glosarioa eta laburdurak

GLOSARIOA

1. **GIZARTE-ARLOKO ESKU-HARTZEAREN ESPARRUA** Estrategiari dagokionez, eta legea betez, ulertzen da gizarte-arloko esku-hartzearen eremua hau dela: EHSSLk laugarren artikuluan esku-hartze sozialeko jardueratzat definitzen duena, edo gizarte-arloko esku-hartzearen esparrukoa, eta barne hartzen ditu gizarte-zerbitzuak, enplegua lortzeko sustapena, espazio sozio-laborala, sozio-sanitarioa, sozioedukatiboa, soziohabitazionala, soziojudiziala, soziokulturala edo antzeko beste espazio batzuk, bai eta garapenerako lankidetzaren ere, betiere jarduera horiek artikuluen horren lehen atalean zehaztutako helburura bideratzen badira: <<gizarteratzea, garapenerako lankidetzaren eta biztanleria osoaren eskubideen aitortza sustatzea da, bai eta zaugarritasun- edo bazterkeria-egoeran, babesik gabe dauden, desgaitasunen bat edo/eta mendekotasunen bat duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateek horren erabilera efektiboa egitea ere, gizarte-desberdintasunen, bazterkeriaren, babesik ezaren eta indarkeria matxistaren aurka borrokatuz, eta gizarte zuzen, solidario, berdintasunezko, parte-hartzaile eta demokratikoago batera bideratutako beharrezko gizarte-transformazioan aurrera eginez>>.
2. **LANKIDETZA ETA ELKARLANA**. Estrategiari dagokionez, LANKIDETZATZAT hartzen dira sektore publikoak, ekonomikoki edo beste modu batean, EHSSko erakundeei laguntza ematen dien balizkoak, haiek interes orokorreko jarduerak egin ditzaten, edo alderantziz.

Eta ELKARLANTZAT ulertzen dira honelako egoerak: EHSSko erakundeek eta sektore publikoak elkarrekin lan egitea arau baten garapenean, arreta-sare batean, zerbitzu baten horniduran... Gizarte-arloko esku-hartzearen esparruan, normalean erantzukizun publikoko eta kudeaketa mistoko espazioekin edo sistemekin lotuta planteatzen dira (kudeaketa publiko zuzena eta ekimen pribatuarekin elkarlanean egindako kudeaketa, soziala nagusi izanik); horrelakoa da, esate baterako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Baina, planteatu daiteke, halaber, esate baterako, proiektu baten exekuzioari dagokionez, diagnostikoaren fasetik ebaluazioaren fasera arte. Dena dela, normalean, lankidetzaren kontzeptua erabiliko dugu, generikoki, lankidetzaren, definitu berri dugun moduan, eta elkarlana barne hartuta.

3. **ASOZIAZIONISMO TXIKIA ETA ERTAINA (ATE)**. Asoziazionismo txikia eta ertaina (ATE) dela ulertzen da, strategiaren esparruan eta EHSSren Liburu Zuriaren emaitzak kontuan hartuta, 60.001 euro baino diru-sarreraren bolumen txikiagoa duten HSSko erakundeak (txikiak) eta 60.001 eurotik 300.000 eurora arteko diru-sarrerak dituztenak (ertainak).

Erakunde horiek sektoreko erakundeen % 79 adierazten dute: % 32k kudeatzen duen bolumen ekonomikoa 12.000 eurotik beherakoa da; % 21ek kudeatzen duena, 12.001 eurotik 60.000 eurora artekoa, eta % 26k kudeatzen duena, 60.001 eurotik 300.000 eurora artekoa. ATE kontzeptuak asoziazioetara bagaramatza ere, irudi juridiko guztiak sartzen dira.

4. **Erantzukizun publikoko zerbitzuen HORNIDURA.** Erantzukizun publikoko zerbitzuen HORNIDURATZAT ulertzen da, dokumentu osoan, horien diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean aurreikusitakoa, eta, bereziki, III. kapituluan aurreikusitakoa betez. Ikusi 10. artikulua 1. atala, erantzukizun publikoko sistemetako eta sistemen arteko (soziosanitarioa...) interakzioetako lankidetzari buruzkoa, eta 12. artikulua 1. atala, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurako lankidetzari buruzkoa.
5. **SAREAK.** SARETZAT ulertzen dira, dokumentu osoan, <<bigarren mailako eta hortik gorako erakundeak, beste batzuk ordezkatzeko dituztenak, eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duen Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak, haiek ordezkatzeko dituen sarerik ez dagoenean jarduteko lurraldean edo eremu geografikoan>>, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 2. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoa betez.

Dokumentu osoan, **“EHSSko erakundeak eta sareen parte-hartzea”** aipatzen denean, ulertu behar da erakundeak parte-hartzea, normalean behintzat, haiek kide diren sareen bidez antolatzen dela, eta, estrategiari dagokionez, EHSSko sareak EEZMren parte diren sareek eta erakundeek osatzen dituztela ulertzen da. Modu berean, EHSSko sareei dagokienez, ulertu behar da jardueren diseinua, zabalkundea eta ebaluazioa egiteko, kontuan hartuko direla, bereziki, Sareen Sarea eta Sareen Sarean bilduta ez dauden eta beren jardueren-eremuetan maila gorenekoak diren sareak, eta EEZMn ordezkatzeko “sare” guztiak, beste batzuen parte-hartzea ahaztu gabe.

LABURDURAK

Dokumentu osoa **laburdura** hauek erabiliko dira: **EHSS** Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala adierazteko; **EHSSE** edo “estrategia”, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapen Estrategia adierazteko; **EHSSL** edo “legea” Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea adierazteko, eta **EEZM**, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia adierazteko.